

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**ARRISKUAREN BALORAZIOA GENERO-  
INDARKERIAN: GAUR EGUNGO GABEZIAK  
ETA ERRONKAK**

**EGILEA:** Irati Torralba Goiri

**ZUZENDARIA:** Katixa Etxebarria Estankona

**Zuzenbide Fakultatea (LEIOA)**

**Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)**

**2021-2022**

**IKD i<sup>3</sup> Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022**

*Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikusegitik (IKDi<sup>3</sup> 21-30)*

# BIBLIOGRAFIA

<b>LABURDURAK</b> .....	3
<b>1.SARRERA</b> .....	4
<b>2.ARRISKUAREN BALORAZIOA ETA HORREK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAREN BABESEAN DUEN ERAGINA</b> .....	7
2.1. Datuek erakusten diguten genero indarkeriaren errealitate gordina .....	7
2.2. Arriskua: lehen hurbilketa.....	9
2.2.1.Arriskua. Zertan datza eta nola neurtu? .....	9
2.2.2.Arriskuaren kontzeptuaren eboluzioa.....	11
2.3. Arriskua genero indarkerian. Horren balorazio eta kudeaketaren garrantzia .....	13
<b>3.GENERO INDARKERIAREN EREMUAN ARRISKUAREN BALORAZIOAREN INGURUKO ARAUDIA</b> .....	15
<b>4.EMAKUMEAREKIKO BABES-NEURRIAK HARTZEKO EPAILEAK ESKURA DITUEN ARRISKUA BALORATZEKO TRESNEN AZTERKETA</b> .....	19
4.1. VioGén sistema .....	19
4.1.1. Sistemaren helburuak eta ezaugarriak.....	19
4.1.2. Euskadiren kasu partikularra: Etxekoen eta emakumeen babes (EBA) proiektua .....	21
4.2. Arriskuaren polizia-balorazioa (APB) .....	22
4.2.1. Arriskuaren polizia-balorazioaren formularioa osatzen duten itemak eta horren emaitzak .....	23
4.2.2. Polizia-balorazioaren inguruko hainbat arazo eta gabeziak .....	24
4.2.3. Arrisku-mailari dagozkion babes-neurrien ezarpena .....	28
4.2.4. Arriskuaren eboluzioaren balorazioaren beharra .....	28
4.3. Arriskuaren auzitegiko balorazioa (AAB) .....	30
4.3.1. Arriskuaren auzitegiko balorazioaren inguruko araudia .....	30

4.3.2. Forentseek egindako balorazioa eta ABIUak .....	31
4.3.3. Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateen erabilera eskasa.....	32
4.3.4. Bizkaiko ABIUri aipamen berezia .....	33
<b>5.ONDORIOAK.....</b>	<b>36</b>
<b>BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRI OSAGARRIAK .....</b>	<b>39</b>
Bibliografia: .....	39
Txostenak, ikastaroen aktak eta bestelako iturriak: .....	41
Legeria: .....	44

## LABURDURAK

<b>AAB</b>	Arriskuaren auzitegiko balorazioa
<b>ABIU</b>	Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak
<b>AEPB</b>	Arriskuaren eboluzioaren polizia-balorazioa
<b>ANE</b>	Auzitegi Nazionaleko epaia
<b>APB</b>	Arriskuaren polizia-balorazioa
<b>DASH</b>	<i>Domestic abuse, stalking and harassment and honour-based violence</i> (Etxeko tratu txarrak, zelatatzea, jazarpena eta ohorean oinarritutako indarkeria )
<b>EBA</b>	Etxekoen eta emakumeen babesak
<i>Ibid.</i>	<i>Ibidem</i>
<i>Id.</i>	<i>Idem</i>
<b>OJ.</b>	Oinarri juridikoa
<i>op. cit.</i>	<i>Opere citato</i>
<b>Or.</b>	Orrialdea
<b>PGS</b>	Posizionatze Globaleko Sistema
<b>PKL</b>	Prozedura Kriminalaren legea
<b>SARA</b>	<i>Spousal Assault Risk Assessment</i> (senar emazteen kontrako eraso-arriskuaren balorazioa)
<b>zk.</b>	Zenbakia

## 1. SARRERA

Emakumeak pairatzen duen egiturazko indarkeriaren aurkako borrokan eta, bereziki, prebentzioaren eremuan, arriskuaren balorazioa funtsezko tresnetako bat dugu.

Arriskuaren balorazio egokia egitearen beharraren adibide daukagu, apirillean gertatutako indarkeria bikarioaren kasua, *Sueca* parrizidioa izenez ezagutzen dena. José Antonio eta María Dolores Suecan bizi ziren eta pasa den urteko uztailean, ezkontza hausteko asmoz, adostasunez dibortzio demanda aurkeztu zuten epaitegietan; horretan, bikoteak semearekiko zaintza partekatua zuen hitzarmen arautzailea ezarri zuten. Hilabete bat geroago, abuztuan, beste organo judicial batek, otsailean bere emaztea lepotik hartu eta paretaren kontra jotzeagatik, epaiketa azkar baten bitartez, José Antoniori komunitatearen aldeko 40 eguneko lan-zigorra, zortzi hilabeteko urruntzea eta emazte ohiarekiko komunikazio-debekua ezarri zizkion. Gainera, epaian amari esleitu zizkion adingabekoaren zaintza eta guraso-ahala, eta aitaren bisita-erregimen oro eten egin zen. Hala ere, hilabete geroago, irailean, bi ezkontideek zaintza partekatua ezartzen zuen hitzarmen arautzailea berretsi zuten Familiako Epaitegian, eta zegokion epaia eman zen. Epaitegi honi ez zitzaion jakinarazi genero indarkeriagatiko prozedura penalik zegoenik, ezta adingabearen zaintza amaren alde ezartzen zuen eta aitarentzako bisita-erregimena eteten zuen epaia ere. Hortaz, bisita-erregimenari eutsi zitzaion eta neurria bera errespetatuz, abuztuaren 10ean semea bere aitarekin zegoela, horrek bi labankada eman zizkion eta hil egin zuen.

Bere garaian Dolores salaketa jartzean, poliziak arriskuaren balorazioa egin zion, baina horren emaitza ‘erdikoa’ izan zen. Hori dela-eta, emakume oiharengana ez hurbiltzea eta harekin ez komunikatzea izan ziren erabakitako babes-neurriak, baina haien semeak aita bisitatzen jarraitu behar zuen. Deigarria da, ordea, José Antonio tratamendu psikiatriko pean zegoela, ez zuela medikaziorik hartzen eta alkoholaz abusatzen zuela. Egia esan, egitate horik guztiak baloratuta eta mehatxuak eta jazarpenak ugaritzen jo zirenez kontuan hartuta, sistemak ‘garrantzi berezikotzat’ joko lukeela kasua, eta horrek zortzi aldiz biderkatzen duela biktimarentzako heriotza-arriskua. Horregatik, Guardia Zibilak bere atestatuan, bi iradokizun sartu zituen: erasotzaileari presazko auzitegiko balorazioa egitea eta fiskaltzari nahitaezko kontrola egiteko eskatzea posizionatze globaleko sistema baten bitartez. Hala eta guztiz ere, auzitegiko medikuak ez zuen kondenatua inoiz ikusi ezta ebaluarik egin ere eta ez zioten urruntze-agindua kontrolatzeko inolako gailurik jarri,

VioGén sistema eskatzen zuen bezala<sup>1</sup>.

Aipatu berri dugun *Sueca*-ren kasuan tamalez agerian geratu den bezala, biktima babesteko eta genero-indarkeriak eragindako eraso berriak eta heriotzak saihesteko, funtsezkoa da arriskuaren balorazio eta kudeaketa egokia egitea. Izan ere, arriskuaren balorazioak emakumearen babesean duen eragina izango da ikerketaren ardatza. Zehazki, lan honen xedea, batetik, genero indarkeriaren eremuan arriskuaren balorazio eta kudeaketaren sistema aztertzea izango da, eta, bestetik, horrek gaur egun dituen gabeziak eta erronkak.

Aurreko helburuak gidari hartuta, lana lau bost atal desberdinetan egituratuta dago. Nahiz eta ikerketaren ardatza genero indarkeriaren arriskuaren balorazioa izan, hura aztertzen hasi aurretik, egokia iruditu zait arriskua zertan datzan eta hau neurtzearen edo baloratzearen eboluzioari erreferentzia egitea. Horregatik, lanaren lehenengo zatian, lehenik, datuen ikuspuntutik emakumea babesteko balorazio egokia egiteak duen eragina aztertzen dut, bigarrenik, arriskuaren kontzeptuak denboran zehar izan duen eboluzioa eta, azkenik, arriskuaren balorazioa egitearen beharra eta bera kudeatzearen garrantzia.

Lan honen bigarren zatiak –zatiarik zabalena- eramango gaitu epaileak arriskua baloratzeko duen bideetara. Aurreko pausu moduan, arriskuaren balorazioa arautzen duten legeak lantzen ditut. Jarraian, arriskua baloratzeko dauden baliabideetan murgiltzen naiz, alde batetik, poliziak duen baloratzeko eta kudeatzeko erremintan, VioGén sistemaren bitartez egiten dena, eta beste alde batetik, auzitegiko balorazioan. Baita ere, Euskal Herriak erabiltzen den sistema propioa aztertuko da, EBA.

Azken zatiak aurreko lauen egitura bera jarraitzen du ondorioak aurkezteko. Azken orrialdeetan, ikerketa bermatzen duten bibliografia eta bestelako iturriak zerrendatzen ditut.

Gradu amaierako lana egiterakoan, oso garrantzitsuak izan dira aldizkariak eta liburuetakoko kapituluak, kongresuetan aurkeztutako ponentzien aktak eta Espainiako gobernuak eta Berdintasun ministerioak argitaratutako txostenak. Baita ere, berebizikoak izan dira emakumeak babesten dituen legeria, arriskua aztertzeke eta balorazioa egiteko protokoloak eta “Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta

---

<sup>1</sup> LIDÓN, INMA, “La génesis del parricidio de Sueca: amenazas del padre y un régimen de visitas suspendido del que nadie avisó”, *El mundo*, 2022ko, apirilaren 4a. Eskuragarri: <https://www.elmundo.es/comunidad-valenciana/2022/04/04/624ab44321efa030268b457a.html> [Azken kontsulta: 2022/06/12].

biktimen babesa, diziplinarteko ikustegitik” IKDi<sup>3</sup> proiektuaren esparruan Basauriko Ertzain-etxean egindako praktketan ikasitakoa. Aipatu beharko nuke azken hauek oso aberasgarriak izan direla.

Aldizkariak, batez ere UPV/EHUko liburutegiko datu-baseen bitartez lortutakoak dira, legeria Estatuko Aldizkari Ofizialetik (BOE) eta txostenak Gobernuak duen webgunetik.

Iturri horien guztien ekarpenetik eta analisitik sortzen dira gure ikerketa azken ondorioekin bukatzeko beharrezkoak diren elementuak.

## 2. ARRISKUAREN BALORAZIOA ETA HORREK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAREN BABESEAN DUEN ERAGINA

### 2.1. Datuek erakusten diguten genero indarkeriaren errealitate gordina

2019. urtean Espainiako berdintasun Ministerioak argitaratutako makro inkestak agerian utzi duenez, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen artean, 2.905.489k jasan izan dute indarkeria fisikoa edo sexuala haien bikotekidearengatik edo bikotekide ohiarengatik hau da, emakumeen %14,2<sup>2</sup>.

Emakumearen aurkako indarkeriaren ondorio larrienetarikoak erailketa da, izan ere, 2003. urtetik 2022. urtera arte 1.149 emakume izan dira erailiak haien bikotekideengandik edo bikotekide ohiarengatik. Pasa den 2021. urtean, eraildako emakumeen datu baxuena izan genuen, baina, hala ere, 44 biktima egon ziren<sup>3</sup>. Haietatik, 9 izan ziren alde zuzenetik indarkeria salatzen zutenak, hau da, biktimen % 20.5 bakarrik izan ziren indarkeria jasan zutela salatzen zutenak. Salaketa jarri zuten 9 emakumeen artean, 7 izan ziren babesneurriak izan zituztenak prozesuaren momentu batean, baina hilketaren momentuan, bakarrik 5 emakume izan ziren urruntze-neurriak indarrean zituztenak, babes-neurri moduan eta erasotzaileak berak hautsi zituztenak emakumea erasotzeko<sup>4</sup>. Hau da, 2021. urtean erasotzaileen %100ek babes-neurriak apurtu zituzten biktima erailtzeko.

2022. urteko ekainaren 13ra arte 19 emakume izan dira erailiak. Haietatik 5 bakarrik dira alde zuzenetik erasotzailea salatzen dutenak eta, salaketa jarri ostean, 4 emakume izan dira prozesuarekin jarraitu nahi izan dutenak<sup>5</sup>. Prozesuarekin jarraitu nahi izan duten emakumeetatik bakarrik 3 izan ziren babes-neurriak indarrean zituztenak; babes-neurririk ez zuten emakumeak erailketaren momentuan ez zuten indarrean babes-neurririk. Beraz, ikus

---

<sup>2</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *Resumen ejecutivo de la Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019*, Espainia, 2020. Eskuragarri:

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/> [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>3</sup> Haien harreman sentimentala aztertuz, emakumeen erdiak haien bikotekideek hil zituzten, eta emakumeen beste erdiari dagokionez, biktimak erasotzailearen bikotekideak izan ziren edo banatzen hasia zeuden.

<sup>4</sup> GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA, *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas. Datos provisionales*, Espainia, 2021. Eskuragarri: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/VMortales\\_2022\\_05\\_03.pdf](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/VMortales_2022_05_03.pdf) [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>5</sup> Ez salatzearen edo salaketa kentzearen arrazoiak askotarikoak izan daitezke: sistemarekiko mesfidantza, erasotzailearen jokabidearen beldur direlako, gehiegizko publizitatearen beldur direlako... Baita ere, Salaketa kentzeko eta prozeduratik aldentzeko erabakia prozesuan parte hartzen duten profesionalentzako, frustrazioa eragiten du, baina biktimen erabakia errespetatu behar da. LARRAURI PIJOAN, ELENA, “¿Por qué retiran las mujeres maltratadas las denuncias?”, *Revista de derecho penal y criminología*, 12. zk., 2003, 2. or.



daitekeenez, 19 emakumeetatik bakarrik %26.3 izan ziren bortizkeria salatu egin zutenak eta haietatik 4 emakumek bakarrik jarraitu zuten aurrera prozesuarekin; 4 emakume horietatik, 3k ziren babes-neurriak indarrean zituztenak. Hemen ikusi dezakegu zein garrantzitsua den indarkeria baten aurrean salaketa jartzea, arriskuaren balorazioa egin ahal izateko, salaketarik baldin ez badago, ezin daitekela arriskuaren baloraziorik egin, eta beraz, ezin daiteke babes-neurririk ezarri, eta prozesuarekin jarraitu zuten %60k babes neurriak izan zituzten. Baina horrek ez du esan nahi genero indarkeriaren kontrako borroka emakumeen eskuetan jarri behar denik. Beraz, aurrean ere %100 gizon izan dira babes-neurriak apurtu dituztenak biktima erailiz.

Azpitarratu beharko litzateke biktimak funtsezko garrantzia duela, bai delituaren prebentzioan, bai lekuko moduan. Egia esan, salaketarik ez badago, bortizkeria erregistro judizialek kanpo geratzen da, beraz, ezin izango ditu babes-neurriak eduki, eraso berriak jasateko arriskua gutxitzeko, non eta ez den hirugarren pertsona batek edo polizia gertatutako tratu txarren berri eman diezaiotela epaitegiari<sup>6</sup>.

Era berean, salaketa egin ondoren, prozesua bertan behera uztea erabakitzen duten emakume asko daude. 2021. urteko datuak ikusita, salatu zuten 9 emakumetatik, bakarrik 6 emakume izan ziren prozesuarekin jarraitu egin nahi zutenak, hau da, salaketa jarri zutenen % 66.7k<sup>7</sup>. Emakumeek, prozesuarekin ez jarraitzea erabakitzen dutenean, frogabideak izugarri murriztu egiten dira, eta emakumearen salaketaz gain, beste froga-elementurik ez baldin badago, prozesuaren largespena gauzatzen da. Hau gertatzen denean, alde aurretik, erabakitako kautelazko neurriak automatikoki indarririk gabe geratzen dira, biktima arrisku-egoeran kokatzea eragiten duena<sup>8</sup>.

Datuak aztertuta, emakumeak salaketa jartzean prozesuan gauzarik garrantzitsuenetarikoa dela esan dezakegu, salaketarik baldin ez badago, ezin delako arriskuaren baloraziorik egin eta ezin zaio babesik eman.

---

<sup>6</sup> Zentzun honetan, SOLE RAMON, ANNA M.<sup>a</sup>, “La valoración del riesgo de las víctimas de violencia de género”, *Diario La Ley*, 7353. zk., 2010, 287. or.

<sup>7</sup> GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA, *op. cit.*

<sup>8</sup> Kautelazko neurriak, epaileek agindu ditzaketen neurriak dira, prozesuaren garapen egokia eragotz lezakeen arrisku oro saihesteko helburua dutena. Kautelazko neurriak izan daitezke: erasotzailea etxetik kanpo uztea, biktimari hurbiltzeko debekua, polizia-kontsigna... Zentzu honetan, LARRAURI PIJOAN, ELENA, *op. cit.*, 2. or

## 2.2. Arriskua: lehen hurbilketa

### 2.2.1. Arriskua. Zertan datza eta nola neurtu?

Espainiako Errege Akademian (RAE)<sup>9</sup> arriskua, gaztelaniaz, *contingencia o proximidad de un daño* moduan definituta dago gaztelaniaz; hau da, kalte bat gerta ahal dadilaren aukera. Definizioa argia izan arren, askotan, hori arrikugarritasun kontzeptuarekin nahasten da. Baina garrantzitsua da arriskua arrikugarritasunetik desberdintzea.

Arrikugarritasunari dagokionez, hau *contingencia o riesgo inminente de que suceda algún mal* bezala definituta dago aipatutako hiztegian. Ikus daitekeenez, bi kasuetan kalte bat gerta dadilaren aukera da baina haien arteko desberdintasuna denborazkotasunean aurkitu dezakegu; izan ere, arrikugarritasunean kaltea berehalakoa da, ordea, ez da horrela gertatzen arriskuan<sup>10</sup>.

Arriskuaren balorazioa egiterakoan, pertsoneri buruzko informazioa biltzen da eraso berriz gertatzeko probabilitatea zein den jakiteko eta neurtzeko. Ebaluazioa egin ostean, beharrezkoak diren segurtasun-neurri egokiak hartuko dira berriz ere kalterik ez gauzatzeko<sup>11</sup>.

Arriskuaren balorazioa egiterakoan, profesional batek arriskutsuak diren faktoreak ebaluatzen ditu eta zehaztuta dauden item batzuekin ebaluazioa auzitaratzen du, arriskuaren iragarpena eginez; ondoren, arriskuarekiko erabakiren bat hartu behar dutenei emaitza jakinarazi behar zaie. Profesionalek, arriskuaren balorazioa egiteaz gain, fenomenoaren zorrotasuna barneratu behar dute eta arriskuaren aurrean nola jokatu behar den adierazi behar dute, hau da, zein babes-neurri hartu behar diren biktima babesteko<sup>12</sup>.

Hala ere, kasu jakin baterako informazioa biltzeko prozesua ez da berdina edozein indarkeria motarekin. Horrela, ulertzen da indarkeria bakoitzak arrisku faktore desberdinak dituela eta, hortaz, babes partikularrak. Horregatik, beharrezkoa da aurreikusi nahi den fenomenoaren (gure kasuan genero-indarkeria) arrisku faktoreak identifikatzea, honela,

---

<sup>9</sup> <https://dle.rae.es/diccionario>

<sup>10</sup> LORENTE ACOSTA, MIGUEL, “Violencia contra las mujeres: peligrosidad y valoración de riesgo”, *Revista Europea de Derechos Fundamentales*, 19/1 zk., 2012, 192-198. or.

<sup>11</sup> *Ibid.*, 194. or.

<sup>12</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS, “Perfiles de víctima y de agresor en violencia de género: implicaciones para la valoración del riesgo. Presentación del último estudio de casos sobre homicidios de violencia de género”, *Cuadernos penales José María Lidón*, 14. zk., 2018, 223. or.

arriskua kudeatzeko estrategia egokiak erabiltzeko eta arriskua aldizka berriz ebaluatu ahal izateko<sup>13</sup>. Adibidez, iraganean baliatutako indarkeria mota guztietako arrisku-faktore komuna da, baina parafiliak sexu-erasoen arrisku faktore gisa jarduten dute, baina ez bikotearen aurkako indarkeriaren eremuan<sup>14</sup>.

Arriskuaren balorazioa egiterakoan, faktore estatiko edo dinamikoen artean bereiztea beharrezkoa da. Alde batetik, faktore estatikoak ditugu; hauek pertsonaren iragana kontuan hartzen dute eta oso zailak dira aldatzeko edo, ezinezkoa. Bikotearen aurkako indarkerian, faktore estatiko moduan ditugu bikotekidearen aurkako indarkeriaren historia eta urrutze-aginduen hausteak. Beste alde batetik, faktore dinamikoak ditugu; hauek denboran zehar gora beherak izaten dituzte eta indibiduoaren barne egoerak edo aldi baterako egoerak islatzen ditu. Faktore dinamikoen adibide izan daitezke jeloskortasuna, alkoholaren kontsumoa eta jarrera matxistak, besteak beste<sup>15</sup>.

Faktore bi hauek desberdintzea garrantzitsua da, bai arriskuaren balorazioa egiteko momentuan, baita kasu bakoitzarekiko kontrol plana diseinatzeko, faktore estatikoak ezin direlako aldatu, baina bai dinamikoak<sup>16</sup>.

Zentzu honetan, indarkeria bakoitzarekiko arriskuaren balorazioa egitean, balorazio desberdin bat egiten da eta profesionalak egiten duen diagnostikoa existitzen diren adimen zientifikoen arabera egin beharko luke, ez bere intuizio eta dedukzioen arabera<sup>17</sup>.

Lehen, balorazioa egiterakoan, metodo kliniko ez egituratuaren bidez egiten zen, baina gaur egun, arriskuaren balorazioa egiterakoan metodo egituratua erabiltzen da. Izan ere, indarkeria-arriskua iragartzeko teknika berri horiek eraginkortasun prediktibo handiagoa dutela erakutsi dute<sup>18</sup>.

Ezin da ukatu arriskuaren balorazioa egitea indarkeriari aurrea hartzeko beharrezkoa dela. Gogoratu behar dugu genero-indarkerian beste indarkerietan ez dagoen ezaugarri bat aurkitzen dugula, biktimaren eta erasotzailearen arteko harreman afektiboa. Horregatik,

---

<sup>13</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS, *op. cit.*, 223. or

<sup>14</sup> LORENTE ACOSTA, MIGUEL, “Violencia contra las mujeres: peligrosidad y valoración de riesgo”, *Revista Europea de Derechos Fundamentales*, 19/1 zk., 2012, 195. or.

<sup>15</sup> *Ibid.*, 196-197. or.

<sup>16</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS. *op. cit.*, 224. or.

<sup>17</sup> MONTESINOS GARCIA, ANA, “Los algoritmos que valoran el riesgo de reincidencia. En especial, el sistema VioGén.”, *Revista Aranzadi de Derecho y proceso penal*, 64 zk., 2021, 4. or.

<sup>18</sup> *Ibid.*, 5. or.

genero-indarkeria jasaten duten emakumeek, berrerortzetik babesteko behar gehigarri bat behar dute <sup>19</sup>.

Azkenaldian, arriskuaren balorazioa egiteko sistema asko daude: SARA (*Spousal Assault Risk Assessment*), DASH (*Domestic abuse, stalking and harassment and honour-based violence*), SVR-20 eta Respect<sup>20</sup>. Hurrengo epigrafeetan aztetuko den moduan, Espainiako estatuan VioGén sistema erabiltzen da eta Euskadin aldiz, EBA sistema.

### 2.2.2. Arriskuaren kontzeptuaren eboluzioa

Hasiera batean, delitu berriak gertatzeko probabilitatea neurtze aldera, arriskugarritasunaren kontzeptua erabiltzen zen, baina geroago, arriskua kontzeptua erabiltzen hasi zen. Lehen aipatu dugunez, bi kontzeptuen artean dauden desberdintasunei erreferentzia egitea beharrezkoa da gaur egungo kontzeptua ulertzeko.

Arriskugarritasunaren kontzeptua XIX. mendean sortu zen. Kontzeptu tradizionalan, medikuak eta psikologoak, pertsonengan dauden elementuak eta alterazioak kontuan hartuta, pertsonak berak, gizartearen aurka delitu edo kalte bat egiteko zein probabilitate zeukan zehaztu behar zuen. Pertsonen elementu finkoak eta konstanteak ziren, pertsonaren pertsonalitatearen parte zirenak. Hau da, zuzenbidera bideratutako sistema zurruna zen. Zuzenbidera bideratuta dagoen sistema, pertsonak aldeztatik beste delitu bat egin duen ala ez kontuan hartzen du<sup>21</sup>. Hau da, salaketa jartzean, erasotzaileak aldeztatik beste salaketaren bat izan badu, arriskutsua izango da, salaketarik ez duenean ez bezala; azken kasu honetan, subjektua ez da arriskutsua izango. Baina, QUINSEYk eta HARRRISek esan zuten moduan, arriskugarritasunaren balorazioa egiteko orduan, indibidua aldeztatik beste kalteren bat eragin duen edo ez kontuan hartzea ez da nahikoa. Zuzenbidera bideratutako sistema erabiltzean, batzuetan, balorazioa zuzena izaten zen eta biktimaren segurtasuna eta prebentzioa bermatzen zen; baina, beste batzuetan, aldiz, negatibo faltsuak gertatu dira baita positibo faltsuak. Aipatutako autoreek dioten moduan, errakuntza horien ondorioa txarrak dira bai gizartearentzat bai gizabanakoentzat<sup>22</sup>.

---

<sup>19</sup> BORGES BLÁZQUEZ, RAQUEL, "Obligaciones estatales positivas de prevención y medidas de protección civiles para víctimas de violencia doméstica y de género. Una apuesta por su regulación", *Actualidad jurídica iberoamericana*, 13. zk., 2020, 903. or.

<sup>20</sup> Agerian uzten du MONTESINOS GARCIA, ANA, *op. cit.*, 20-21. or.

<sup>21</sup> *Ibid.*, 192-198. or.

<sup>22</sup> Aipatutako autoreen lanak aztertzen ditu, LORENTE ACOSTA, MIGUELEK, *op. cit.*, 194. or.

Hori dela-eta, errealitate zientifikoak ez du zuzenbideko sistemarekin bat egiten. Errealitate zientifikoak dioena da, aurretik delitu bat egon ez arren, subjektua arriskutsua izan daitekeela. Hau da, arriskugarritasunaren kontzeptua ez dagoela pertsonen faktore konstataekin eta finkoekin lotuta bakarrik, baizik eta elementu gehiago hartu behar direla kontuan. Hori dela-eta, hasiera batean erabiltzen zen zuzenbidera bideratutako sistemak ez zuten errealitatearekin bat egiten eta errealitate zientifikoa erabiltzen hasi zen, hau da, erasotzailea bera kontuan hartuz, eta ez bakarrik aurretik delitu bat egin duen edo ez<sup>23</sup>.

Hortik aurrera, ulertu zen garrantzitsua zela arriskuaren eta arriskugarritasunaren kontzeptuak desberdintzea, juridikoki babestutako ondasun baten aurka kalte egitearen buruzkoak, metodologia zientifikoa bideratzeko balorazioa egiterakoan. Metodologia zientifikoa aztertuz, arriskugarritasunaren balorazioa egiteko hiru ikuspegi desberdin egon dira denboran zehar: epaiketa egituratua, erabaki aktuarialak hartzea eta epaiketa ez egituratua<sup>24</sup>.

Epaiketa ez egituratuan, erabakiak adituaren uste profesionalen oinarritzen dira, normalean aurretiko kalifikazioetan eta esperientzian arrazoituta. Baina ziurtatu da subjektibotasun handia duen ikuspegia dela, oinarri teoriko ahula eta epaileen arteko fidagarritasun-indize baxuak dituenak. Erabaki aktuarialak hartzearen sistema, aldiz, arau estatistikoetan oinarritzen da. Eta, azkenik, epaiketa egituratua gaur egun erabiltzen den sistema da eta, esan liteke, aurreko bi sistemen arteko zubi bat dela; alde batetik, arrisku-faktore esplizituei buruzko informazioa sistematikoki biltzera bideratuta dagoena, baina beste sistemez gain, profesionalari kasu zehatz bakoitza baloratzeko eta erabakiak hartzeko nolabaiteko askatasuna ematen diona<sup>25</sup>.

Orain erabiltzen den arriskuaren kontzeptuari dagokionez, berritasun bat dugu, biktimari ere erreparatzen zaiolako, eta ez bakarrik delitugileari. Hau da, hasiera batean, arriskugarritasuna kontzeptua erabiltzen zenean, delitugilea berriz ere delitu bat egiteko zeukan probabilitatea kontuan hartzen zen, baina arriskua kontzeptuarekin, biktima kontuan hartzen hasi zen, eta horren adibide daukagu, 2009. urtean, Berdintasun Ministerioaren Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren programan, PGS gailuak erabiltzen hastean, biktima babesteko<sup>26</sup>. Sistemak delitugilearen gertukotasuna Estatuaren segurtasun

---

<sup>23</sup> LORENTE ACOSTA, MIGUEL, *op. cit.*, 192-198. or.

<sup>24</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSE LUIS, *op. cit.*, 225.or.

<sup>25</sup> *Ibid.*, 226-227. or.

<sup>26</sup> Bakarrik epaileak ezarri ahal duen sistema da. Erloju baten antzeko orkatilean jartzen den eskumutur bat da. Eskumuturrak segurtasun sistema bat dauka non ia ezinezkoa den manipulatzeko. Horrez gain, mugikor bat

indar eta kidegoei jakinarazten die neurri judizialak gainditu dituela. Beraz, adibide honen bitartez ikusi dugu nola kontzeptua arriskugarritasunetik arriskutasunera aldatzean, biktimaren babesa kontuan hartzen hasi zela<sup>27</sup>.

### **2.3. Arriskua genero indarkerian. Horren balorazio eta kudeaketaren garrantzia**

Arriskuaren kudeaketa egiteko, beharrezkoa da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekiko babes eta segurtasun neurriak hartzea, arriskuaren balorazioaren emaitzaren arabera<sup>28</sup>. Balorazio hori testuinguru espezifikoa kontuan hartuta egiten da, eta probabilitate-izaera baino ez du. Arriskuen kudeaketa mehatxu bati buruzko ziurgabetasuna kudeatzeko ikuspegi egituratua da, arriskuaren ebaluazioa barne hartzen duten giza jardueren sekuentzia baten bidez. Eta arriskua kudeatzeko tresnak pertsona batek indarkeria-mota jakin bat epe labur eta ertainean egiteko izan dezakeen arriskua baloratzeko eta aztertzekeo erremintak dira. Baina arrisku hori zehazteko ez ezik, hura kudeatzeko ere erabiltzen dira. Hau da, balizko berrerortzearekin lotutako arrisku-faktoreen bitartez, etorkizuneko prebentziorako interesgarrienak diren puntuak ezar daitezke. Horrela, ez dute “iragartzen” berrerortzea, baizik eta hori gerta ez dadin laguntzen dute, hartzen den erabakiak gidatutako esku-hartze baten bidez<sup>29</sup>.

Arriskuaren kudeaketa oreka bat da egin dezakegunaren eta indarkeria agertzeko probabilitatea baldintzatzen duen frogatu ezin dugunaren artean. Esate baterako, bikotekidearen aurkako indarkeriaren kasuan, arrisku-faktorarik garrantzitsuena erasotzailearen urrutze-aginduak urratzeko joera bada, komeni da zaintza intentsiboa,

---

ematen zaio erasotzailea, beti aktibatuta egon behar dena, berarekin eskumuturrera lotuta dagoelako. Biktimari, beste mugikor bat emango zaio eta, delitugilea neurriak gainditzen dituenean, emandako mugikorrera mezu bat helduko zaio. REUSS, OTTO, “Crónica de una pulsera fallida: por qué la tecnología contra la violencia machista le hace más daño a la víctima”, *El enemigo anónimo*, 2021eko abenduaren 3a. Eskuragarri: <https://www.elenemigoanonimo.com/ciberseguridad-tecnologia-pulsera-maltratadores-violencia-machista-de-genero-2/#:~:text=Se%20trata%20de%20Bindi%2C%20un.de%20todo%20tipo%20de%20violencia>. [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>27</sup> LORENTE ACOSTA, MIGUEL, *op. cit.*, 207-208. or.

<sup>28</sup> Espetxeetan egiten diren tratamendu-programak, Lurralde Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiaren bidez. Barne Ministerioko Espetxeetako Idazkaritza Nagusiarena, zehazki, “Programa de intervención para agresores. Violencia de género (2009)”. Arriskua kudeatzeko beste tresna bat dela esan daiteke, kondena bete ondoren, espetxeratzea eragin zuten jokabideetan berriro ez erortzea saihesteko. Esku-hartzearen helburua bikotekideari zuzendutako indarkeriazko edozein jokabide desagerraztea da, baita jarrera eta sinesmen sexistak aldatzea ere. Esku hartzeak berdintasun eta errespetu balioak sustatu behar ditu. VARGAS GALLEGU, ANABEL, “Prevención del riesgo. Gestión del Riesgo”, *IV Congreso del Observatorio contra la Violencia Doméstica y de Género*, Madril, azaroaren 16-17, 2016, 3-5. or.

<sup>29</sup> *Id.*

monitorizazio elektronikoa eta biktimaren babesa proposatzea<sup>30</sup>.

Aldiz, gure arrisku-faktore nagusia nahasmendu mentaleko egoera akutua bada, arriskuaren kudeaketa tratamenduaren kontrolera bideratu behar da (barneratzea barne, egoki iritziz gero), bai eta erasotzaileak biktimarengana edo hurbileko beste pertsona batzuegana jotzeko ezintasuna ziurtatzen duten beste neurri batzuetara ere. Jakina, arriskuaren kudeaketa, baloraziotik ondorioztatzen dena, oso dinamikoa eta aldakorra da, indarkeria-arriskua bera bezala<sup>31</sup>.

Genero-indarkeria aurkezteko moduak eta horretan eragina duten elementuen ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzea funtsezkoa da arriskua kudeatzeko, hiru ikuspegi kontuan hartuta: indarkeria kasuak prebenitzea eta, agertu denean, berriz ez gertatzea, biktimak eraginkortasunez babestea, eta erasotzaileak berrezteko informazioa izatea<sup>32</sup>.

Arriskuaren iragarpena erronka bat da gaur egun Justizia Administrazioako erakundeentzat, baina arazo orokorraren zati gisa ere ulertu behar da, ezagutza hobetzeko eta biktimei eta haien ingurune afektiboei indarkeria-egoerari aurre egiten lagunduko dien informazio argia emateko, egoera hori justifikatzen duten mito eta sinesmenetatik aldenduz eta haren larritasuna minimizatuz. Arrisku-elementuetako batzuk ezagutzea funtsezkoa izan daiteke eraso bat saihesteko eta giza hilketa saihesteko. Adibidez, 2003. urtean JOHNSON eta HOTTONen lanen ondorioz, bikote harremana uztea giza hilketarako arrisku-faktore larrienetako bat zela konturatu ziren; hori dela-eta, emakumeak bikote harremana haustean garrantzitsua da, berak jakin dadila, egoera horretan egoteagatik, arriskuan dagoela bere bikotekide ohiarengatik erailia izateko<sup>33</sup>.

---

<sup>30</sup> VARGAS GALLEGO, ANABEL, *op. cit.* 3-5.or.

<sup>31</sup> *Id.*

<sup>32</sup> LORENTE ACOSTA, MIGUEL, *op. cit.*, 191. or.

<sup>33</sup> Aipatutako lanaren ondorioak mahaigaineratzen ditu, *Id.*

### 3. GENERO INDARKERIAREN EREMUAN ARRISKUAREN BALORAZIOAREN INGURUKO ARAUDIA

Arriskuaren balorazioa zertan datzan eta zein den horren garrantzia aztertuta, araudiak horri buruz zer dioen interesatzen zaigu, baita ere nor den arriskuaren balorazioa egin behar duena. Hori dela-eta, emakumearen aurkako indarkeriaren eremuan arriskuaren balorazio eta kudeaketari dagokionez, hainbat araudi kontuan hartu behar ditugu. Beraz, arriskuaren balorazioaren inguruko arau garrantzitsuenak aztertzeari helduko diogu:

Alde batetik, 2011. urtean egindako Istambuleko hitzarmena daukagu<sup>34</sup>. Hitzarmen honetan nabarmentzekoa da 51. artikulua: *“Las Partes adoptarán las medidas legislativas o de otro tipo necesarias para que todas las autoridades pertinentes puedan llevar a cabo una valoración del riesgo de letalidad, de la gravedad de la situación y del riesgo de reincidencia de la violencia a efectos de gestionar el riesgo y garantizar, en su caso, la coordinación de la seguridad y el apoyo.”* Manu honek dioenaren arabera, genero-indarkeriaren organo guztiek egin beharko lukete arriskuaren balorazioa, arriskua kudeatu ahal izateko eta biktima babesteko<sup>35</sup>.

Emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko, estatu mailan, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari egin behar diogu erreferentzia, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa<sup>36</sup>. 1/2004 Lege Organikoa, berariazko neurriak sortu behar direla arautzen du, biktimak osotasunean onera daitezten. Hau da, biktima erasotzaileengandik urruntzea, ez da nahikoa, kasuen ezaugarriei erreparatuta, beste neurri asko hartu behar dira. Hori dela-eta, 31. artikulua honela esaten du: *“El Gobierno establecerá, en las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, unidades especializadas*

---

<sup>34</sup> 2011. urteko maiatzaren 11n, Espainiako ahalguztiduna, *ad referendum*, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria aurreikustearen eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena sinatu egin zuen Istanbulen. Hitzarmena 2014. urteko abuztuaren 1ean indarrean sartu zen.

<sup>35</sup> Istambuleko hitzarmena oso garrantzitsua da, Europan, emakumearen aurkako indarkerian izaera loteslea duen lehen tresna delako. Hitzarmen honen helburuak honako hauek dira: Emakumearen aurkako indarkeriarekiko tolerantziarik ez izatea; genero indarkeriari aurrea hartzea, biktimak babestea, eta erasotzaileekiko legezko ekintzak abiaraztea; aita ere, jendea emakumearen aurkako indarkeriaren arazoaz sentikor bihurtu, batez ere gizonetik haien portaera alda dezaten. Hitzarmen honen politika integrala, emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko, indarkeriaren bat gertatzen denean, estatu osoan, erantzukizun globala izatea da. Lege integralak, lehentasun nazional gisa ezartzen du emakumeenganako indarkeria desagerraraztea, generoagatiko diskriminazio-modu muturretariko bat delako, emakumeak aurreratzea eta ondo biziitzea eragozten duena. YUGUEROS GARCIA, ANTONIO JESUS, “Violencia de género, seguridad de las víctimas desde la perspectiva psicosocial”, *Revista de Género e Igualdad*, 4. zk., 2021, 62-63. or.

<sup>36</sup> Lege Organiko honen lehenengo artikuluan aipatzen den bezala, emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegi bereziak sortzen ditu. Hiru oinarri hartzen dituen sistema integral bat sortzen da: prebentzioa, babesa eta biktimaren berreskuratzea eta delituaren jazarpena.



*en la prevención de la violencia de género y en el control de la ejecución de las medidas judiciales adoptadas*". Baina, "La actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad habrá de tener en cuenta el Protocolo de Actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y de Coordinación con los Órganos Judiciales para la protección de la violencia doméstica y de género"<sup>37</sup>.

Segurtasun-indar eta -kidegoen Jarduerarako eta Organo Judizialekin Koordinatzeko Protokoloa dioena da, emakumearen aurkako indarkeria ezaguera duen momentu berean, segurtasun-indar eta kidegoek, emakumeak daukan arriskua baloratuko dutela eta beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartuko dituztela. Izan ere, Lege Organiko honi esker, 2007. urtean, VioGén sistema martxan jarri zen.

Lege Organiko honekin jarraituz, beharrezkoa da bigarren xedapen gehigarria kontuan hartzea. Aipatutako arauak Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak – Hemendik aurrera ABIU- sortzea agintzen du laguntza eta erantzun espezifikoa eta espezializatua emateko, ikuskera globala, gertakari edo gai isolatuei buruzko txostenak hobetu ahal izateko. Auzitegiko medikuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalak osatutako unitate funtzional gisa eratu ziren, genero-indarkeriako kasuetan kalitatezko frogatzeko sistema bat eraikitze eta horrela epaitegiari ahalik eta informazio gehiena emateko<sup>38</sup>. Xedapen gehigarri hau kontuan hartuta, 2011. urtean, 'ABIU garatzeko proposamena eta horien kalitate eta jardura estandarrak' garatu zen. Proposamen honek ABIU modu azkar batean garatzearen garrantzia adierazten du, baita ere lurralde guztietan ABIU modu homogeneo batean lan egin dezaten<sup>39</sup>.

Arriskuaren balorazioari dagokionez, aurrekoetaz gain, Prozedura Kriminalaren Legea (PKL) ere kontuan hartu behar dugu. Zentzu honetan, PKLren 544 *ter* artikulua honako hau dio: "El Juez de Instrucción dictará orden de protección para las víctimas de violencia doméstica en los casos en que, existiendo indicios fundados de la comisión de un delito o falta contra la vida, integridad física o moral, libertad sexual, libertad o seguridad

---

<sup>37</sup> 1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa. BOE, 313 zk., 2004ko abenduaren 29koa.

<sup>38</sup> JUSTIZIA MINISTERIOA, ESPAINIAKO GOBERNUA, *Unidades de Valoración Forense Integral (UVFI)*, Eskuragarri: [https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral#:~:text=Justicia%202020%2D2021-%C2%BFQu%C3%A9%20son%20las%20UVFI%3F,Valoraci%C3%B3n%20Forense%20Integral%20\(UVFI\)](https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral#:~:text=Justicia%202020%2D2021-%C2%BFQu%C3%A9%20son%20las%20UVFI%3F,Valoraci%C3%B3n%20Forense%20Integral%20(UVFI)) [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>39</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, *Guía práctica de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género*, Madril, 2016, 246-247. or.

de alguna de las personas mencionadas en el artículo 173.2 del Código Penal, resulte una situación objetiva de riesgo para la víctima que requiera la adopción de alguna de las medidas de protección reguladas en este artículo”. Artikulu honetan bertan jasotzen da, biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa dagoenean, epaileak, biktimak babesteko agindua emango duela<sup>40</sup>.

Azkenik, apirilaren 27ko 4/2015 Legea daukagu, biktimaren estatutua; estatutu honetan 19. artikulua aztertuko dugu. Artikulu honek dioenaren arabera, *“Las autoridades y funcionarios encargados de la investigación, persecución y enjuiciamiento de los delitos adoptarán las medidas necesarias, de acuerdo con lo establecido en la Ley de Enjuiciamiento Criminal, para garantizar la vida de la víctima y de sus familiares, su integridad física y psíquica, libertad, seguridad, libertad e indemnidad sexuales, así como para proteger adecuadamente su intimidad y su dignidad, particularmente cuando se les reciba declaración o deban testificar en juicio, y para evitar el riesgo de su victimización secundaria o reiterada”*. Artikulu honen ondorioz, PKLren 282. artikulua aldatu zen, eta azkeneko honek honela dio: *“La Policía Judicial tiene por objeto y será obligación de todos los que la componen, averiguar los delitos públicos que se cometieren en su territorio o demarcación; practicar, según sus atribuciones, las diligencias necesarias para comprobarlos y descubrir a los delincuentes, y recoger todos los efectos, instrumentos o pruebas del delito de cuya desaparición hubiere peligro, poniéndolos a disposición de la autoridad judicial. Cuando las víctimas entren en contacto con la Policía Judicial, cumplirá con los deberes de información que prevé la legislación vigente. Asimismo, llevarán a cabo una valoración de las circunstancias particulares de las víctimas para determinar provisionalmente qué medidas de protección deben ser adoptadas para garantizarles una protección adecuada, sin perjuicio de la decisión final que corresponderá adoptar al Juez o Tribunal. (...)”* Hau da, artikulu honen arabera, delituen

---

<sup>40</sup> Artikulu honetan, izaera penaleko kautela-neurriak agertzen dira: *“Las medidas cautelares de carácter penal podrán consistir en cualesquiera de las previstas en la legislación procesal criminal. Sus requisitos, contenido y vigencia serán los establecidos con carácter general en esta Ley. Se adoptarán por el juez de instrucción atendiendo a la necesidad de protección integral e inmediata de la víctima.”*. Babes-agindu batean erabakitako neurri zibilek hogeita hamar eguneko indarraldia dute, eta, epe hori igarota, alderdiek ez badute dagokion demanda zibila jarri, ondorerik gabe geratuko dira. Hogeita hamar eguneko epean alderdiek demanda zibila aurkezten badute, babes-aginduan erabakitako neurrien indarraldia beste hogeita hamar egun luzatuko da, demanda aurkeztu zenetik zenbatzen hasita. Gainera, legegileak neurri zibilen gutxieneko eduki bat ezartzen du: zaintza eta jagoletza, guraso-ahala eta bisita-erregimena etetea eta, azkenik, etxebizitzaren erabilera esleitzea. GALDEANO SANTAMARIA, ANA, *Medidas cautelares en violencia de género: servicio de guardia*, 2013ko maiatzaren 30a.

berri duten polizia-agenteeek biktimen inguruabar bereziak baloratu behar dituzte, behin-behinean behintzat, babes egokia bermatze aldera beharreko babes-neurriak hartzeko, hargatik eragotzi gabe epaileak edo auzitegiak kautela-neurriei buruz hartu behar duen azken erabakia.; beste modu batean esanda, biktima babestea ez dagokio bakarrik epaileari, baizik eta, polizia judizialaren ardura ere bada.

Beraz, araudia ikusita, biktima babesterakoan hiru organo dira arriskuaren balorazioan eta kudeaketan parte hartzen dutenak. Zentzu honetan, alde batetik, PKLak bere 282. artikuluan poliziak biktima babestu behar duela dio; eta, beste alde batetik, 544 *ter* artikulua dioena da, epailea dela biktimak babesteko agindua emango duena, biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa dagoenean. Hau da, PKLren arabera, biktimak salaketa jartzean, polizia da bera babestu behar duena lehenengo momentuan, eta ondoren epaileak, poliziak hartutako babes-neurriez gain, beste babes-neurri batzuk ezarriko ditu arrisku-egoera objektiboa baldin badago. Beste alde batetik, 1/2004 Lege Organikoaren arabera, epaileak babes-neurriak erabakitzerakoan, arriskuaren beste balorazioen bat behar baldin badu, ABIUk laguntza eta erantzun espezifiko eta espezializatua emango dio epaileari, honek babes-neurriak erabaki dadila. Beraz, biktimak poliziak eta epaileak babestu behar ditu, baita ere azkeneko hau da kautelazko neurriak hartu behar dituen.

#### **4. EMAKUMEAREKIKO BABES-NEURRIAK HARTZEKO EPAILEAK ESKURA DITUEN ARRISKUA BALORATZEKO TRESNEN AZTERKETA**

Aurrerago aztertuko den moduan, arriskuaren balorazioa egiterakoan, poliziaren balorazioa daukagu eta baita ere auzitegiko balorazioa.

Indarkeria salatzen den momentuan, poliziek VioGén sisteman barneratuta dagoen item batzuen bitartez balorazioa egingo dute eta emaitza epaileari bidaliko diote. Epaileak, poliziak egindako balorazioa kontuan hartuta, biktima babesteko beharrezkoak diren babes-neurriak hartuko ditu. Epaileak babes neurriak, erabakitzean beharrezkoa ikusten baldin badu, auzitegiko profesionali balorazio zehatzago bat egitea eskatuko die<sup>41</sup>.

##### *4.1. VioGén sistema*

###### *4.1.1. Sistemaren helburuak eta ezaugarriak*

VioGén sistema, 2007. urteko uztailaren 26an martxan jarri zen, 1/2004 Lege Organikoa kontuan hartuta<sup>42</sup>. VioGén emakumearen aurkako indarkeriaren aurkako jarraipen integralaren sistema da.

Alde batetik, aipatutako sistemaren bitartez, arriskuaren balorazioa egiten da integratua dauden item batzuen bitartez. Arriskuaren balorazioa eginda, baita ere biktimen jarraiketa egitea beharrezko da; biktimaren osotasuna arriskuan jar dezakeen gorabehera edo gertakariren bat detektatzen baldin bada, lan prebentiboak egin behar dira<sup>43</sup>.

VioGén Sisteman, ikerketan bildutako informazio guztia sartu behar da: salaketa egin duen emakumerena, autorearena, inplikatuak egon diren beste pertsonenak (familia edo auzokoak), beste zerbitzu batzuek (poliziaren datu basea) eta txostenetan batutakoa (begi-ikuskapen teknikoa, medikuaren lesioen partea edo zerbitzu psikologikoen txostena)<sup>44</sup>.

---

<sup>41</sup> Adibidez, biktima deitu galdetzeko erasotzailearekin arazoren bat izan duen jakiteko, bere bizileku inguruan behatzea erasotzaileak hortik jarraitzen baldin badu edo biktima epaitegietara laguntzea, besteak beste.

<sup>42</sup> 1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa. BOE, 313 zk., 2004ko abenduaren 29koa.

<sup>43</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *Sistema VioGén*, Espainiako Gobernu. Eskuragarri: <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-mujer/sistema-viogen#:~:text=Hacer%20predicci%C3%B3n%20del%20riesgo,en%20todo%20el%20territorio%20nacional> [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>44</sup> SALOM LUCAS, AMPARO, “Inteligencia artificial y proceso”, *Revista Aranzadi de Derecho y Nuevas Tecnologías*, 57. zk., 2021, 9-10. or.

VioGén sistemaren helburuak honako hauek dira: emakumearen aurkako indarkerian eskuduntza duten erakunde publikoak batzea da, interesgarria den informazio guztia batzea, arriskuaren balorazioa egitea eta, egindako balorazioaren arabera, biktimaren jarraipena egin eta babesa eman lurralde nazional osoan eta prebentzio-lana egitea biktimaren integritatea arriskuan dagoenean<sup>45</sup>.

Lehen aipatu bezala, arriskuaren balorazioa egiterakoan, bai poliziak bai forentseek egin dezakete. Poliziek egindako balorazioa VioGén sistemaren bitartez egiten dute bertan integratuta dagoelako –aurrerago aipamena egingo diodana-, baina hasiera batean forentseek ez zuten VioGén sistemara sarrera. Hori dela-eta, 2020. urtean protokolo berria sortu eta gero, forentseek erabiltzen duten formularioa VioGén sisteman integratuta dago. VioGén sistema polizia erabiltzeaz gain, sisteman sartuta dauden erakundeek informazioa harremanetan jarri dezakete, baina horretarako sisteman sartzeko baimenduta egon behar dira<sup>46</sup>. Izan ere, fitxategian sartzeko, segurtasun-maila handia dago, horregatik bakarrik sartu ahal dira erabiltzaile instituzional jakin batzuk, eta haien identifikazio elektronikoaren bidez hainbat sarbide maila eta datu edizio dituzte<sup>47</sup>.

VioGén sisteman, polizia nazionalak, guardia zibilak eta Nafarroako polizia foralak hartzen dute parte. Mossos d'Esquadra eta Ertzaintzari dagokionez, esan beharra dago haien arriskua baloratzeko protokolo propioa dutela. Baina VioGén sisteman sartuta dagoen emakume bat bizilekuz aldatzen baldin bada Kataluniara edo Euskal Herrira, bere kasua polizia-protokolo espezifiko batekin koordinatuko da eta bere bizilekuan zituen babes neurriak jarraitzen izango ditu<sup>48</sup>. Beraz, VioGén sistemaren bitartez, biktimari babesa eskaintzen zaio lurralde nazional osoan.

HCR-20, VRS-2, VRAG, PCL-R, EPV, SAVRY, SARA, DASH, SVR-20 eta Respect sistemak<sup>49</sup> ere daude emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko, hauek

---

<sup>45</sup> MONTESIONOS GARCIA, *op. cit.*, 25. or.

<sup>46</sup> PASTOR-BRAVO, MAR; MONTERO JUANES, JOSE M.; BARBERIA MARCALAIN ENEKO; GRIJALBA MAZO, MARTA; ESTARELLAS ROCA, AINA; BAÑON GONZALEZ, RAFAEL, “El protocolo de valoración urgente del riesgo de violencia de género del Consejo Médico Forense”, *Revista Española de Medicina Legal*, 47. zk., 2021, 172-173. or.

<sup>47</sup> SANCHEZ LOPEZ, BÁRBARA, “La diligencia policial de valoración del riesgo de violencia de género en el sistema viogén”, *Foro Nueva Época*, 22. zk., 2019, 125. or.

<sup>48</sup> SALOM LUCAS, AMPARO, *op. cit.*, 9-10. or.

<sup>49</sup> Adibidez, HCR-20 paziente mentalen eta preso bortitzen artean indarkeria fisikoaren arriskua aurreikusteko gida bat da. VRAG, espetxean dauden edo beste zigor neurri batzuk betetzen ari diren gaixo mentalen eta delitugileen artean indarkeriaz berrerortzeko arriskua baloratzeko eskala bat da. PCL-R, psikopatia duten delitugileentzako erabiltzen da. ANDRÉS-PUEYO, ANTONIO; EQUÉBURÚA, ENRIQUE, “Valoración del

arriskua baloratzeko sistemak dira, baina Espainian arriskuaren balorazioa egiteko VioGén sisteman integratuta dauden itemak erabiltzen dira<sup>50</sup>.

#### 4.1.2. Euskadiren kasu partikularra: Etxekoen eta emakumeen babesa (EBA) proiektua

Estatu mailan, VioGén sistema erabiltzen da, baina Euskal Herrian, 2021. urteko uztailetik EBA martxan dago. EBA sistema, VioGén antzekoa da, baina sistema bakoitzak bere funtzionamendu lurraldea dauka<sup>51</sup>.

Sistema honen helburu nagusia, Ertzaintzaren eta Euskadiko udaltzaingoaren etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren delituengatik espediente guztien kudeaketa partekatua da. Era berean, informazioa eskuragarri egongo da biktima horien arretan parte hartzen duten erakunde publiko guztientzat, hala nola epaileentzat, fiskaltzarentzat, Osakidetzaentzat edo gizarte-taldeentzat. Horrela, pertsona horien birbiktimizazioa saihestu nahi da, eta haien kontakizuna hainbat aldiz eta hainbat instantziaren aurrean errepikatu behar ez izatea<sup>52</sup>.

Momentu honetan, Ertzaintzak eta Bilbo, Donostia, Gasteiz, Basauri, Barakaldo, Errenteria eta Getxoko Udaltzaingoek parte hartzen dute EBA proiektuan eta, lehen azaldu moduan, beste sektoreetara bide egin nahi dute<sup>53</sup>.

EBA, bakarrik Euskadin erabiltzen den sistema denez, Euskaditik ez daukagu VioGén sistemara sartzeko aukerarik. Orduan, biktima bat Euskaditik kanpo datorrenean, ez dute bere txostena ikusteko aukerarik. Hori gertatzen denean, biktima bere etxelekutik aldatzen denean, agente eskudunak, polizia-koordinazio zentzura bidaltzen du informea, eta haiek biktima doan bizileku berrira ikusita, bertako agente eskudunei bidaltzen die informea, ertzaintzaren 42 zerbitzu aginduaren bitartez.

---

riesgo de violencia: instrumentos disponibles e indicaciones de aplicación”, *Psicothema*, 22. zk. 2010, 403-409. or.

<sup>50</sup> MONTESIONOS GARCIA, ANA, *op. cit.*, 20. or.

<sup>51</sup> OTAOLA, JUAN CARLOS “El programa EBA de la Ertzaintza, de lucha contra la violencia machista, comienza en julio”, *Cadena SER* Eskuragarri:

[https://cadenaser.com/emisora/2021/06/17/radio\\_bilbao/1623918521\\_439097.html](https://cadenaser.com/emisora/2021/06/17/radio_bilbao/1623918521_439097.html) [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>52</sup> Deia, Honi buruzko informazioa eskuragarri:

<https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2021/09/27/ertzaintza-policias-locales-compartiran/1154315.html>, [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>53</sup> OTAOLA, JUAN CARLOS, *op. cit.*

#### 4.2. Arriskuaren polizia-balorazioa (APB)

1/2004 Lege Organikoaren 31. artikulua -lehen aipatutakoa- kontuan hartuta, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren kasuetan emakumearen aurkako indarkeriaren arrisku-maila poliziak baloratzeko protokoloa eta hori organo judizialei eta Ministerio Fiskalari jakinaraztea onartzen dituen 10/2007 Instrukzioa onartu zen<sup>54</sup>. Protokolo honek, batetik, VioGén sistema sortu eta martxan jarri zuen eta, bestetik, emakumearen aurkako indarkeriaren kasuetan, arriskuaren balorazioa egin beharra eta hartu beharreko neurri polizialak eta judizialak martxan jarri behar zirela azpimarratu zuen<sup>55</sup>.

Protokolo horren ostean, VioGén sistemak ekarritako ikaskuntzak kontuan hartuta, eraldaketak sortu dira eta protokolo desberdinak sortzen joan dira. Izan ere, aipatzekoa da, 2019. urtean onartutako protokoloa. Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren 4/2019 instrukzioak protokolo berri bat ezarri dute genero-indarkeriaren arrisku-mailaren polizia-balorazioa egiteko biktimen segurtasuna kudeatzeko eta kasuen jarraipena egiteko, genero-indarkeriako kasuen jarraipen integraleko sistemaren bidez (VIOGÉN sistema)<sup>56</sup>. Protokolo honek Arriskuaren Poliziaren Balorazio –aurrerantzean APB- eta Arriskuaren Eboluzioaren Poliziaren Balorazioa –aurrerantzean AEPB- testak berriztatzen ditu (5.0 bertsioa), baita biktima bakoitzari plan berezi bat ezartzea agintzen du eta arriskuaren balorazioa eguneratzeko beharra. Izan ere, hasiera batean egindako balorazioa ez da estatikoa eta, beraz, denbora pasa ahala, egoera aldatu egiten da eta zirkunstantzia berriak kontuan hartu beharra dago arrisku mailaren balorazio berriak egiteko. Horregatik, lehenengo balorazioa egin eta gero, balorazio gehiago egin behar dira denboran zehar eta, beharrezkoa baldin bada, biktimarekin elkarrizketa egin berriz ere. Bigarren eta hurrengo balorazio berriak egin ondoren, emaitzak organo judizialei eta ministerio fiskalari jakinarazi behar zaizkie<sup>57</sup>.

---

<sup>54</sup> Instrucción nº 10/2007, de la Secretaría de Estado de Seguridad, por la que se aprueba el “Protocolo para la valoración policial del nivel de riesgo de violencia contra la mujer en los supuestos de la Ley Orgánica 1/2004 de 28 de diciembre, y su comunicación a los órganos judiciales y al Ministerio Fiscal.

<sup>55</sup> VARGAS GALLEGO, ANABEL, *op. cit.*, 3.or.

<sup>56</sup> Instrucción 4/2019, de la Secretaría de Estado de Seguridad, por la que se establece un nuevo protocolo para la valoración policial del nivel de riesgo de violencia de género (Ley Orgánica 1/2004), la gestión de la seguridad de las víctimas y seguimiento de los casos a través del sistema de seguimiento integral de los casos de violencia de género (Sistema VIOGÉN).

<sup>57</sup> VARGAS GALLEGO, ANABEL, *op. cit.*, 3-5. or.

#### 4.2.1. Arriskuaren polizia-balorazioaren formularioa osatzen duten itemak eta horren emaitzak

APB poliziak osatzen du lehenengo salaketa gertatzen denean, eta ez biktimak. Gerta daitekeena da salaketa epaitegietan jartzea; beraz, kasu horretan, salaketaren berri eman behar zaie poliziei, hauek VioGén sisteman sar dezatela, emakumeak babeste aldera<sup>58</sup>

APB 5.0 aipatu beharko genuke, non 35 item desberdinez osatutako formularioa da<sup>59</sup>. Ondoren, APB 5.0 formularioan jasotako 35 arrisku-adierazleak deskribatuko dira, 5 faktore edo dimentsio handitan multzokatuta dauden gaiak direnak.

Lehenengo faktorean indarkeriaren historia kontuan hartzen da. Faktore multzo honek bikotearen indarkeria-historiarekin zerikusia duten adierazleak biltzen ditu, soil-soilik mugatu gabe. Azken gertakariari dagokionez, aldiz, salaketan adierazi diren indarkeria-gertakari guztiak baloratu behar dira. Gertatutako azken gertakaria bakarrik kontuan hartuko balitz, ez litzateke kasuaren konplexutasuna islatuko, biktimaren arriskua baloratzeko informazioa garrantzitsua kanpoan gera bailiteke. Katgoria horren barruan, indarkeria-mota desberdinak (psikologikoa, fisikoa, sexuala eta mehatxuak), larritasuna eta denboran aurrera egitea baloratzen dira<sup>60</sup>.

Bigarren faktorean erasotzailearen ezaugarriak aztertzen dira. Faktore hau inkestako garrantzitsuena da, hiru adierazle multzo biltzen baititu: erasotzailearen oraintsuko doikuntza psikosozialaren ezaugarriak; aurrekari aktuarial legalak; eta genero-indarkeriaren hiru adierazle oso espezifiko, hala nola jeloskortasuna, kontrol-jokabideak eta jazarpen-jokabideak<sup>61</sup>.

Hirugarren faktorean biktimaren zaugarritasuna baloratzen da. Ondorengo faktorea, adingabeekin lotutako inguruabarrak baloratzen ditu. Biktimak adingabeak bere kargura dituen (biologikoak izan edo ez) eta etxeko indarkeriaren eraginpean egoteagatik zaugarritasun egoeran egon daitezkeen jakiteko da. Eta azkeneko faktorea, inguruabar astungarriak baloratzen ditu, faktore horrek biktimaren eta erasotzailearen arteko

---

<sup>58</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS, *op. cit.*, 227-231. or.

<sup>59</sup> GENERO INDARKERIAREN, AZTERLANEN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOA, *Guía de procedimiento VPR5.0 y VPER4.1 Protocolo de valoración policial del riesgo y gestión de la seguridad de las víctimas de violencia de género*, Espainiako Gobernuak, Madril, 2019, 9. or.

<sup>60</sup> *Id.*

<sup>61</sup> *Id.*



harremanaren kalitateari buruzko hainbat alderdi baloratzen ditu<sup>62</sup>.

Aipatutako itemez bitartez balorazioa egin ondoren, arrisku estimatu gabea, baxua, ertaina, altua edo muturrekoa izango da. Emaitzetan oinarrituta eta arrisku mailaren arabera, poliziak beharrezkoak ikusten dituen segurtasun-neurriak hartuko dira emakumea babesteko. Adibidez, emaitza altua edo muturrekoa baldin bada, biktimari komisaldegitik ateratzen den momentutik, biktima poliziarengandik eskolatuta aterako da <sup>63</sup>.

#### 4.2.2. *Polizia-balorazioaren inguruko hainbat arazo eta gabeziak*

Aipatzekoa da, ETICAS fundazioak VioGén sistemaren inguruan egindako auditoria. Horren ondorioz argitaratutako txostenean, VioGén sistemaren algoritmoak kritikatzear gain, beste arazo bat azaleratzen du; arriskuaren kalkulua, gizakiaren esku hartzerik gabe exekutatzen den funtzio matematiko bat dela<sup>64</sup>. Honekin batera, nabarmentzekoa da, elkarrizketatuak izan diren 31 emakumeetatik, 15ek sistemarekin izandako esperientzia negatiboki ebaluatu zutela, haietako %45ek, balorazioa arrisku “ez hautematua” izan zutelako. Izan ere, zentzu honetan, txostenak, arriskuaren ebaluazioa egiterakoan azterketa teknikoan mugatu beharrean, langileen esperientzia eta pertzepzioak kontuan hartzea gomendatzen du<sup>65</sup>.

Hau da, txostenak mahaigaineratzen duena honakoa da: arriskuaren balorazioa egiterakoan VioGén sistema erabiltzen da, baina biktimari babesa emateko, ez gara bakarrik sisteman ateratzen den emaitzan oinarritu behar, sistema informatiko bat delako eta ezin dituelako kontuan hartu gizakiak hautematen dituen elementuak. Hori dela-eta, VioGén sistema erabiltzeaz gain, balorazioa egiten duen pertsonak, nahiz eta maila “txikia” edo “ez hautematua” izan, bere esperientzia eta pertzepzioa kontuan hartuz, biktimari egindako balorazioa -eskuz, sistemak automatikoki emandako emaitza alde batera utzita- aldatu ahal izango luke, indarkeria jasan duen emakumea babesteko eta berriz ere indarkeriarik jasan ez dadin.

---

<sup>62</sup> GENERO INDARKERIAREN, AZTERLANEN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOA, *op. cit.*, 9. or.

<sup>63</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS, *op. cit.*, 227-231. or.

<sup>64</sup> Honi buruzko informazioa: <https://elpais.com/tecnologia/2022-04-10/viogen-visita-a-las-tripas-del-algoritmo-que-calcula-el-riesgo-de-que-una-mujer-sufra-violencia-machista.html> [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>65</sup> ETICAS FUNDAZIOA, “Auditoria externa del sistema VioGén”, Madril, 2022ko martxoaren 8a. Eskuragarri: <https://eticasfoundation.org/la-fundacion-eticas-realiza-una-auditoria-externa-e-independiente-del-sistema-viogen/>

Hau da, poliziak balorazioa egiterakoan, sistemak azaleratutako emaitza izan beharrekoa baino baxuagoa baldin bada, datu hori bakarrik kontuan hartu beharrean, poliziak berak, bere esperientzian oinarrituta, emaitza aldatu beharko luke altuago bat jartzeko. Hala eta guztiz ere, argitaratutako txostenean adierazten den moduan, nahiz eta poliziak aukera hori izan, praktikan, hau ez da egiten eta honek ondorio zuzenak ditu. Zentzu honetan, ETICAS fundazioak argitaratutako txostenean mahaigaineratzen denez, erailiak izan diren %56 emakumek, VioGén sistemaren bitartez egindako balorazioan arrisku “txikia” edo “ez hautematua zuten”<sup>66</sup>.

Baina aipatutako txostena ez da VioGén sistemaren aurkako kritikak jasotzen dituen bakarra. Alder horretatik, 2020ko irailaren 30eko auzitegi nazionaleko epaia aipatu beharko genuke.

2016. urteko urriaren 16an Socorro andrea bere senarrak erailia izan zen. Socorro, 2016ko irailaren 17an aurkeztu zuen salaketa, goizalde horretako larrialdietako mediku-partea emanaz eta senarraren aurkako babes-agindua eskatuz. Egun horretan bertan, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak babes-agindua ukatzea erabaki zuen, bertsio kontrajarrietan arrazoituz bere erabakia. Argudiatzen zen bai Socorrok bai bere senarrak besteak eraso egin ziola, eta biek lesio-partiak zituztela; baita ere, salatuak aurrekari penalik ez zuela kontuan hartzen zuen. Horren arabera, agenteek «estimatu gabea» gisa kalifikatu zuten arriskua, eta, beraz, ez zen ulertu Socorro arrisku-egoera objektiborik zegoenik, eta, beraz, ukatu egin zen eskatutako babes-agindua. 2016ko urriaren 16an, senarrak arma zuriz hil zuen Socorro<sup>67</sup>.

Hau da, aldez aurretik, Socorrok bere senarra salatu egin zuen Guardia Zibilen aurrean; haiek APB egin ostean, arrisku estimatu gabea zuela baloratu zuten eta horrela sartu zuten VioGén sisteman. Hala ere, Socorrok bere senarrarekiko babes-neurriak eskatu zituen, baina poliziek ez zioten babes hori eskaini, balorazioan arrisku estimatu gabea zuela argudiatuz. Zoritzarrez, gizonak Socorro erailteza lortu zuen. Epaian zehar, Sistema informatiko batean jarritako konfiantza itsua kritikatzeko da, VioGén sistemaren bitartez egindako balorazioaz gain, poliziek lan gehiago egin behar dutela adieraziz. Zentzu honetan:

---

<sup>66</sup> ETICAS FUNDAZIOA, *op. cit.*

<sup>67</sup> ANE 2350/2020, 2020ko irailaren 30ekoa, 3. OJ.

*“En primer lugar, en cuanto a los factores referidos a la violencia sufrida por la víctima, la actuación de la Guardia Civil debería haber ido encaminada a corroborar los extremos apuntados por la denunciante, entre otros, mediante la búsqueda de posibles testigos, tales como sus vecinos o allegados, especialmente teniendo en cuenta que, tal y como se desprende de la declaración de la víctima, los episodios de agresión se habían extendido por espacio de seis meses.*

*En segundo lugar, la actuación policial de indagación de la Guardia Civil también debería haber sido más exhaustiva en relación con la comprobación de los antecedentes del propio agresor. De haberlo sido, se habría debido investigar un episodio anterior, relatado por la víctima, en el que su marido quiso matar con su arma reglamentaria a su primera esposa (ya que había sido policía en la República Dominicana), así como sus actividades relacionadas con el narcotráfico.*

*Es evidente que, de haberse valorado suficientemente los anteriores factores exigidos en el referido protocolo, especialmente de haberse confirmado los antecedentes del agresor por violencia de género en su país de origen, la Guardia Civil habría contado con una información muy relevante, en orden a considerar la situación real de riesgo en la que se encontraba la víctima y su valoración, en consecuencia, del riesgo hubiera sido, no ya "medio", sino "alto" o "extremo"<sup>68</sup>.*

Ikusten den moduan, poliziak, VioGén sisteman agerrarazitako emaitzan konfiantza osoa jarriz, Socorro andrea bere bikotekidearengaitik indarkeriarik jasotzeko ez zuela arriskurik baloratu zuen. Baina balorazioa egiteaz gain, beste faktore batzuk kontuan hartuko balituzkete, berehala konturatuko ziren Socorro arrisku handian zegoela berriz ere indarkeria jasotzeko.

Izan ere, ETICAS fundazioak egindako auditoriak agerian utzi duenez, VioGén, praktikan, sistema automatizatua da, gutxieneko eta koherentziarik gabeko giza gainbegiratzearekin. Polizia-agenteeek kasuen % 5ean baino ez dute handitu hautemandako arriskua, eta zifra horrek behera egiten du lan-gainkargaren ondorioz<sup>69</sup>.

---

<sup>68</sup> ANE 2350/2020, 2020ko irailaren 30ekoa, 3. OJ.

<sup>69</sup> ETICAS FUNDAZIOA, *op. cit.*

Bere aldetik, GREVIOk egindako txostena, epaiak esandakoaren ildotik doa, Txostenean, zenbait emakume, arriskuaren balorazioaren emaitza baxua izanda erailiak izan direla azaleratzen da. Horrek, zalantzak sortzen ditu babes aginduak ez betetzearen balorazioan ondorioztatutako fidagarritasun mailari buruz.

Hala eta guztiz ere, guztiak ez dira kritikak. Izan ere, GREVIOk etxeko abusatzaileen mugimendua gainbegiratzeko Espainiako agintari egokiek egindako ahalegin garrantzitsuak goraiatu ditu<sup>70</sup>.

GREVIOk berretsi du biktimen adierazpenekiko gehiegizko menpekotasuna gainditzeko modu bat beste ebidentzia-iturri batzuk modu proaktiboan bilatzea litzatekeela, bai lesioak dokumentatuz (biktimaren baimenarekin), eszenako argazkiak edo DNA laginak hartuz, bai bizilagunei eta balizko beste edozein lekukori kontsultak eginez. Horregatik, ontzat jotzen ditu Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak polizia-agenteei emandako azken jarraibideak, zeinetan azpimarratzen baita beharrezkoa den informazio guztia edozein iturritatik lortzeko betebeharra, lekukoetatik, txosten teknikoetatik eta medikuetatik barne<sup>71</sup>.

GREVIOk baita ere, polizia-indarrek emakumeen segurtasuna arrakastaz bermatzen duten adibide positiboak nabarmendu ditu<sup>72</sup>. Hala ere, kezka handiz ikusten du beren bikotekideek edo bikotekide ohiek Espainian azken urteotan eraildako emakumeen % 11 bakarrik baloratu direla arrisku handiko kasutzat. Hori dela-eta, GREVIOk adierazi du premiaz baloratu behar direla arrisku-maila handia kasu batzuetan detektatu gabe egotearen arrazoia<sup>73</sup>.

Honekin batera, ETICAS fundazioak, VioGén arriskuaren puntuazioarekin batera polizia-txosten bat aurkeztu beharko litzatekeela azaleratzen du, emakumeak jasotako puntuazioa justifikatzeko eta, beharrezkoa bada, iritzi profesional gehigarria emateko, bai puntuazioa ez aldatzea erabakitzen dutenean, bai puntuazio hori handitzeko beren aukerako aukera erabiltzen dutenean<sup>74</sup>.

---

<sup>70</sup> GREVIO, *Primer informe de evaluación. España*, GREVIO inf(2020)2019 España, 86.or.

<sup>71</sup> *Ibid.*, 81.or.

<sup>72</sup> Espainiara egindako ebaluazio-bisitan, Ertzaintzak GREVIOri jakinarazi zion 2011tik ez dela hilketarik izan poliziaren babespean dauden emakumeen artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriatatik

<sup>73</sup> GREVIO, *op. cit.* 85.or.

<sup>74</sup> ETICAS FUNDAZIOA, *op. cit.*

#### *4.2.3. Arrisku-mailari dagozkion babes-neurrien ezarpena*

APB balorazioa egin ondoren, emaitzak organo judizialari eta ministerio fiskalari helarazi behar zaizkie, polizia-atestatua eta egin beharreko eginbideekin batera. Epaileak, emakumearen babes-neurriak ezartzean, alde batetik, poliziak bidalitako balorazioa kontuan hartuko ditu, baita ere, beharrezkoa ikusten baldin badu, beste alde batetik, forentseei eskatu ahal die haiek ere arriskuaren balorazio bat egitea. Nahiz eta epaileak babes-neurriak ez ezarri, poliziak alde aurretik ezarritako babes-neurriak indarrean jarraituko dute. Hau da, poliziak balorazioa egin ondoren, beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartuko ditu, eta gero, epaileak, biktima babesteko, beste neurri batzuk aparte jartzea erabaki dezake beharrezkoa edo egokia izanez gero. Baina baita ere, epaileak biktimarekiko babes-neurriak ezartzen ez baldin baditu, poliziak alde aurretik hartutako babes-neurriak izaten jarraitu ahal izango ditu. Hau da, lehenik eta behin poliziak balorazioa eginda, behin-behineko neurriak hartuko ditu, baina geroago epaileak beharrezkoa ikusten baldin badu, neurri gehigarriak jarriko ditu<sup>75</sup>.

ETICAS fundazioak egindako auditorian, elkarrizketatuak izan ziren %80 emakume hainbat arazoren berri eman zuten VioGén galdetegiarekin. Emakumeen %35ek informazio falta adierazi zuten eta, beraz, ez zekiten zer arrisku-maila esleitzen zien sistemak. Baita ere, elkarrizketatuek adierazi zuten zaila egiten zitzaizela gertatutako guztia gogoratzea, beren pentsamenduak antolatzea eta VioGenen galderei erantzun zehatzak ematea, gainera elkarrizketan zehar, ez dute laguntza legalik edo psikologikorik izan<sup>76</sup>.

#### *4.2.4. Arriskuaren eboluzioaren balorazioaren beharra*

ABP gain, arriskuaren eboluzioaren polizia-balorazioa (AEPB) daukagu. Hau, AEPB 4.1 37 itenez osatuta dago. Jarraian, formulario honetan jasotako 37 arrisku eta babes adierazleak deskribatuko dira, analisirako 6 faktore edo dimentsio handitan multzokatuta<sup>77</sup>.

Lehenengo faktorean indarkeriaren historia kontuan hartzen da. Kategoria horren

---

<sup>75</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *op. cit.*, 27. or.

<sup>76</sup> ETICAS FUNDAZIOA, *op. cit.*

<sup>77</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *op. cit.*, 27. or.

barruan, indarkeria-mota desberdinak (psikologikoa, fisikoa, sexuala eta mehatxuak), larritasuna eta denboran aurrera egitea baloratzen dira<sup>78</sup>.

Bigarren faktoreak, azken balorazioa egin zenetik, bere kasuan, egon diren kautelazko xedapen judizialak ez betetzeak edo segurtasun zigor edo neurriak urratzeak baloratzen ditu. Bereiz baloratuko da hurbilketa hori bitarteko telematikoen bidez, hirugarren pertsonen bidez edo hurbilketa fisikoaz gertatu den. Hurrengo faktorean, erasotzailearen ezaugarriak eta portaerak kontuan hartzen dira. Laugarren faktoreak, erasotzailearen portaera positiboen ebidentziak baloratzen ditu. Bostgarren faktoreak, biktimaren portaeren eta inguruabarren ebidentziak neurtuko ditu. Kategoria honetan, biktimaren ezaugarriekin lotutako faktoreak sartzen dira: biktimaren jokabideak, alde aurretik esleitu zaizkion babes-neurrien aurrean; nor bere burua babesteko egin beharko lituzkeen jokabideak; eta kalteberatasun-faktore berriak agertzea, azken balorazioa egin zenetik igarotako denboran sor daitezkeenak<sup>79</sup>.

Azkeneko faktorea, arriskua hautematea eta doitzea da. Faktore honen helburua da jakitea biktimak bere arriskuaren pertzepzio egokia duen, eta, beraz, auto-babes egokia betetzen duen. Izan ere, arriskua gutxiesten badu, biktimak bere burua segurtasun faltsuko egoeran ikusten du, eta arriskuan jar dezaketen jarduerak egin ditzake, auto babeserako neurri egokiak abian jarri gabe. Gainera, bere arreta-sistema ez da behar bezain erne egongo arrisku-seinaleei. Bestalde, biktimak bere arriskua gainbaloratzeak etengabeko alerta-egoeran jarriko du, eta bere buruari estres maila handia ezarriko dio<sup>80</sup>.

AEPBren bitartez, bi emaitza desberdin izan ditzakegu, gorabeherarik gabe edo gorabeherekin. Gorabeherarik baldin badauka, gertaera esanguratsu bat gertatzen denean erabiliko da AEPB, hala nola salaketa berri bat edo urratze bat (poliziaren berrerortzea). Gorabeherarik ez badu, bigarren balorazioa, APB 4.0 emaitzen arabera egingo da. Konkretuki, arriskua muturrekoa bada, 72 ordutan egingo da; altua bada, 7 egun baino lehen; normala baldin bada, 30 egun pasa eta gero; eta baxua bada, 60 egun pasata; eta ez bada arriskurik estimatzen 90 egunetan. Dena dela, ebaluazioa egin ondoren, berriz ere, ebaluazioak gorabeherarik badauka, egindako balorazioaren emaitzak organo judizialei eta Ministerio Fiskalari helarazi behar zaizkie, egoera baloratzeko eta, kasua denean, babes-

---

<sup>78</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *op. cit.*, 27. or

<sup>79</sup> *Id.*

<sup>80</sup> *Id.*

neurriak aldatze edo berriak ezarri aldera. Baita ere, bortizkeria berriz gertatzen baldin bada, momentu horretan arriskuaren balorazioa berriz egingo da<sup>81</sup>.

Azpitarratu beharko litzateke arriskuaren balorazio poliziala egiteko sistema bikoitza (APB eta AEPB) hau Espainian bakarrik dagoela aurreikusita; izan ere estatutik kanpo arriskuaren balorazio poliziala egiteko sistema bakarra daukate<sup>82</sup>.

#### 4.3. Arriskuaren auzitegiko balorazioa (AAB)

##### 4.3.1. Arriskuaren auzitegiko balorazioaren inguruko araudia

Balorazio integraleko araudia aztertuz, lehenik eta behin aipatzekoa da lehen aztertutako 1/2004 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarria, non Gobernuak antolatutako, bere jarduera eremuan, forentseen zerbitzuak antolatuko zituela, auzitegi balorazio integraleko unitateak (ABIU) izan zitzaten. ABIU medikuntzako, psikologiako eta auzitegiko gizarte-lankideekiko profesionalez osatuta dago<sup>83</sup>.

Geroago, 2011. urtean, Justizia Ministerioak emakumearen aurkako indarkeriarekiko premiazko balorazio mediko-forentsea egiteko protokoloa ezarri zuen. Profesionalek adostutako protokoloa izan zen, baina protokoloa eskaera gutxikoa izan zen operadore juridikoen artean<sup>84</sup>. Protokolo honek, poliziak egindako balorazioaz gain, forentseak arriskuaren balorazioa egitea agindu zuen. Baina beharrezkoa zen protokolo hori berrikustea eta eguneratzea, eta, hori dela-eta 2020. urtean protokolo berria egin zen, genero-indarkeriako arriskuaren premiazko balorazio forentsea egiteko. Protokolo berri honek, Arriskuaren Auzitegiko Balorazioa –Hemendik aurrera AAB- erabiltzea gomendatzen du<sup>85</sup>.

Zentzu honetan, baita ere, kontuan hartu beharrezkoa da 2019. urtean egindako 4/2019 instrukzioa -lehen aipatua-. Aurreko orrialdeetan aipatu dugunez, arau honek, poliziak egiten duen baloraziorako protokolo berria ezarri zuen, biktimen segurtasuna

---

<sup>81</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA, *op. cit.*, 27. or

<sup>82</sup> Honela adierazten du, GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUISEK, *op. cit.*, 231-232. or.

<sup>83</sup> GOBIERNO DE ESPAÑA, MINISTERIO DE JUSTICIA, *Unidades de Valoración Forense Integral (VVFI)*, <https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral>. [Azken kontsulta: 2022/06/12].

<sup>84</sup> GREVIO, *op. cit.*, 91.or.

<sup>85</sup> PASTOR-BRAVO, MAR; MONTERO JUANES, JOSE M.; BARBERIA MARCALAIN ENEKO; GRIJALBA MAZO, MARTA; ESTARELLAS ROCA, AINA; BAÑON GONZALEZ, RAFAEL, “El protocolo de valoración urgente del riesgo de violencia de género del Consejo Médico Forense”, *Revista Española de Medicina Legal*, 47. zk., 2021, 172. or.

bermatzeko eta haien jarraiketa egiteko VioGén sistema bitartez, eta zehaztu zuen garrantzi bereziko kasuetan eta adin txikikoak dauden kasuetan, arriskuaren balorazio poliziala (APB) ez dela nahikoa eta AAB egin behar dela<sup>86</sup>.

#### 4.3.2. Forentseek egindako balorazioa eta ABIUak

Lehenik eta behin argitu beharko litzateke forentseek, arriskuaren balorazioa egiterakoan, premiazkoa edo programatua izan daiteke. Premiazko balorazioa, egin behar den estatusunarekin kontuan hartuz, zaila da profesional batek baino gehiagok egitea. Horregatik, normalean mediku edo forentse bakarrak eginiko balorazioa da, premiazko diligentsia izanagatik. Bestetik, auzitegiak balorazio programatua egiten duenean, normalean auzitegiko balorazio integraleko unitateak -lehen esan bezala, ABIU, psikologoak, medikuak eta gizarte lankideak osatzen dute- egiten du<sup>87</sup>.

Egia esan, premiazko balorazioan bakarrik biktimak dituen kalte fisikoak eta erasotzailearen azterketa orokorra egiten da; balorazio programatuan, aldiz, biktimaren balorazioa psikologikoa egiten da, psikiatrian adituak diren mediku-forentseen bitartez, psikologo eta gizarte-langileekin batera<sup>88</sup>.

Epaileak babes-neurriak hartzerakoan, poliziak egindako balorazioa eta balorazio integraleko unitateek egindako balorazioa kontuan hartu beharko lituzke<sup>89</sup>. Baita ere, premiazko balorazio forentsea egin ondoren, balorazioa osatzea beharrezkoa balitz, azterketa osotuago egin beharko litzateke ABIU bitartez<sup>90</sup>

Hasiera batean, ABIUk ez zuen itemez osatutako testa erabiltzen, profesionalek egindako elkarrizketa kontuan hartzen zuten. Aldiz, poliziek arriskuaren balorazioa egiterakoan, EPV-R itemez osotutako testa egiten zuten, EPV-R testa informazio kriminalistaz beterik zegoen, non forentseek ez zekiten asko horri buruz. Baina 2019. urtetik aurrera iritzi profesional egituratuaren metodologia erabiltzen hasi ziren eta ABIUk

---

<sup>86</sup> PASTOR-BRAVO, MAR; MONTERO JUANES, JOSE M.; BARBERIA MARCALAIN ENEKO; GRIJALBA MAZO, MARTA; ESTARELLAS ROCA, AINA; BAÑON GONZALEZ, RAFAEL, *op. Cit.*, 172-173. or.

<sup>87</sup> *Ibid.*, 173. or.

<sup>88</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, "Violencia contra la mujer: una visión médico-forense", *Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020, 263.or.

<sup>89</sup> SANCHEZ LOPEZ, BÁRBARA, *op. cit.*, 129. or.

<sup>90</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, *op. cit.* 263.or.



balorazioa itemen erantzunekin eta elkarrizketekin batera egiten hasi ziren<sup>91</sup>.

#### 4.3.3. Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateen erabilera eskasa

Baina unitate hauek ez dira erabiltzen, 2017. urteko abuztuaren 3an Diputatuen kongresuan azaleratu zen bezala. Paloma MARÍN LÓPEZ andreak –Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako behatoki idazkari tekniko ohiak- adierazi zuen agerikoa dela kasu askotan ez dagoela arriskuaren peritu-baloraziorik. Baita ere Verónica BARROSO TESTILLIANO andrearen ustez – Amnistia Internazionalako Barne Politikako eta Harreman Instituzionalako arduradunak-gutxiegia jotzen da ABIUetara, eta, nahiz eta haien lana oso garrantzitsua izan, estatu mailan organo hauen ezarpena motela izan da, desberdina eta taldeen espezializazioa bermatzen duten hautaketa-irizpiderik gabea. Datu hau aipatu zuen: 2017an 421 txosten baino ez ziren egin protokoloaren arabera (babes-agindurako eskaeren %1,16 baino ez). Bere aldetik, María José ORDÓÑEZ CARBAJAL andreak –Genero-indarkeriarako Gobernuaren ordezkariak- Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateen kopuru handitzea eskatu zuen<sup>92</sup>.

Estatuko itunean, Joaquín PÉREZ DE LA PEÑA, Andaluziako Gobernuaren Ordezkaritzako emakumearen aurkako indarkeriaren aurkako koordinazio-unitateko burua, mediku forentseen balorazioak bultzatzeko beharra azpimarratu zuen. Honek, adierazi zuen poliziaren arrisku-balorazioak, 2008an abiarazi zirenak, ezin direla izan epaileek duten tresna bakarra. ABP poliziaren balorazio bat baino ez dela azaleratzen du; horregatik, funtsezkoa da ABIUren balorazioa izatea, epaileen jarduna errazteko. Gaur egun, balorazio horiek oso gutxi dira, eta areagotu egin behar dira, oso tresna baliotsuak baitira neurri judizialak hartzeko. Unitate horiek aditu-frogak ematen dituzte, genero-indarkeriako delitu ikusezinen euskarri gisa; bestela, oso zailak izango lirateke osotasun moralaren aurkako delituak, tratu txar psikologikoak eta adingabeak lehen pertsonan biktima diren delituak frogatzea.<sup>93</sup>

Baita ere, lehen aipatutako Joaquín DELGADO MARTÍN jaunaren ustez,

---

<sup>91</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, *op. cit.*, 265-267.or.

<sup>92</sup> INFORME DE LA SUBCOMISIÓN CREADA EN EL SENO DE LA COMISIÓN DE IGUALDAD PARA UN PACTO DE ESTADO EN MATERIA DE VIOLENCIA DE GÉNERO, DIPUTATUEN KONGRESUA, 199. zk., Espainia, 2017. urteko abuztuaren 3a.

<sup>93</sup> DIPUTATUEN KONGRESUA, *Aprobación por el pleno del congreso de los diputados del informe de la subcomisión creada en el seno de la comisión de igualdad para un pacto de estado en materia de violencia de género*, 154/2. zk., Espainia, 2016.

biktimaren babesa eraginkorra izan dadin, arriskuaren diagnostikoa diziplina anitzekoa izan behar da, poliziarri, auzitegiko medikuei, psikologoei eta gizarte-langileei eskatuz. Hori dela-eta, beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea arriskuaren balorazioa bateratua izan dadin. Zentzu honetan, Susana MARTÍNEZ NOVO, Emakumeentzako Tratu Txarrak Ikertzeko Batzordeko presidentek uste du funtsezkoa dela ABIUek etengabe jardutea, prozesu judizialaren aurretik eta ondoren, arriskua aldatuz doalako, poliziek arriskuaren eboluzioaren balorazioa egiten duten bezala<sup>94</sup>.

2020. urteko Estatuko fiskaltza Nagusiaren txostenean azpimarratu zenez, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunak bi urteko epean Arrisku Balorazio Integraleko Unitateak eratzeko konpromisoa hartu bazuen ere, helburu hori ez da bete. Aurrerapen handiak egin diren arren, 2019. urtean, ez zen ABIU existitzen hainbat hiritan, hala nola Tarragonan, Lleidan edo Leonen<sup>95</sup>. Bere aldetik, 2021. urtean aurkeztutako txostenean Fiskaltza Nagusiak gabeziak antzematen jarraitzen du; zentzu honetan, argi uzten du oraindik ABIUak ez direla errealitate bihurtu estatu osoan. Baita ere deigarria da eta, aldi berean, kezagarria da GREVIOk Espainiari buruz bidalitako txostenean salatu zuen bezala, lurralde osoko bulego eta balorazio forentseko unitateen kopurua eta osaeran dagoen kontraste handia; izan ere, horrek sistema judizialera jotzen duten biktimen baliabideen berdintasun-printzipioaren aurka egiten du. Batzuek eta besteek betetzen dituzten funtzioak ere desberdinak dira lurralde bakoitzean, eta horiek harmonizatzeke nazio-mailako jarduera-protokolo bat behar da<sup>96</sup>.

#### *4.3.4. Bizkaiko ABIUri aipamen berezia*

Bizkaian gaudela kontuan hartuta erreferentzia berezia egingo diot Bizkaiko ABIUri.

Bizkaiko ABIU Espainiako gainerako unitateak bezala sortu zen, Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarria kontuan hartuz. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen barruan, Bizkaiko ABIU izan zen sortu eta funtzionatzen hasi zen lehena.

---

<sup>94</sup> DIPUTATUEN KONGRESUA, *op. cit.*

<sup>95</sup> ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIAREN TXOSTENA, *Capítulo III: fiscales coordinadores y delegados para materias específicas: 1. Violencia de género y violencia doméstica: 1.4. Instrumentos para la protección de las víctimas*, Madril, 2019,

<sup>96</sup> *Id.*

Ondoren, Gipuzkoako eta Arabako zuzendariordetzei dagozkienak jarraitu dizkiote<sup>97</sup>.

Bizkaian, ABIU sortu zenetik zazpi urte lehenago lanean ari ziren, lehenik biktimekin eta gero tratu txarren emaileekin, medikuekin eta psikologoekin batera eta modu koordinatuan. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Institutua sortu eta handik gutxira, Bizkaian emakumeen aurkako etxeko indarkeria lantzen hasi ziren; hasieran, psikiatrian aditua zen auzitegi-mediku bat eta psikologo bat aritu ziren lanean, eta haien esku-hartzea biktimekin soilik egin zuten<sup>98</sup>.

Pixkanaka-pixkanaka, beste auzitegi-mediku batzuk ere sartu ziren, aditu bihurtu ahala, hiru izatera iritsi arte. Beste psikologo bat ere sartu zen. Beraz, egungo ABIU sortu aurretik, psikiatrian adituak ziren hiru auzitegi-mediku eta bi psikologo zeuden. Informazioa biltzeko protokolo bateratuak diseinatu ziren (mediko-psikologikoak), eta azterlana amaitu ondoren, txosten bateratu bat egin zen<sup>99</sup>.

Diseinu horrek gaur egun daukagun plataforma eta oinarri gisa balio izan zigun. Jakina, gaur egungoarekin beste profesional bat sartu da, eta hori ere ezinbestekoa da, hau da, gizarte-langilea<sup>100</sup>.

Egungo ABIU abiapuntuaren laburpen txiki hau egin ondoren, deskribatu egingo dugu.

Bizkaiko ABIU aztertuz, 2009. urteko otsailaren 4 ebazpena dela-eta sortzen da, lehen aipatutako 1/2004 legearen bigarren xedapen gehigarria dela-eta. Erabaki honetan ABIUk egin beharreko lana agertzen da. Balorazio integraleko unitateak, lehenik eta behin protagonistak ebaluatu behar ditu, bai indarkeriaren zuzeneko eta ez-zuzeneko biktimak bai tratu txarren emailea. Protagonistak ebaluatu ondoren, indarkeria eragitearen faktoreak eta dinamika neurtu behar ditu. Azkenik, protagonistak ebaluatuta eta indarkeriaren faktoreak aztertuta, arriskuaren balorazioa egin behar du<sup>101</sup>.

---

<sup>97</sup> LAZCANO PORTERO, GUILLERMO, *Unidad de valoración forense integral de vizcaya. Experiencia de un año*, 2010, 5. or. Eskuragarri: [https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername\\_1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3DUFVI-vizcaya\\_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509252386&ssbinary=true](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername_1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3DUFVI-vizcaya_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509252386&ssbinary=true) [Azken kontsulta: 2022/05/25]

<sup>98</sup> LAZCANO PORTERO, GUILLERMO, *op. cit.*, 5.or.

<sup>99</sup> *Id.*

<sup>100</sup> *Id.*

<sup>101</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, *op. cit.*, 264-265. or.

Kontuan hartu beharrekoa da, Bilboko ABIUK beste balorazio integralko dituen zenbait berezitasunak. Alde batetik, balorazio integralko unitateak normalean bakarrik biktimak baloratzen ditu, aldiz, Bilboko ABIUK bai biktima bai tratatu txarren emalea aztertzen ditu. Baloratzen duten profesionalak berdina izango dira biezako. Balorazioa egiteko moduari dagokionez, beste balorazio integralko modu berean egindo da; beraz, zentzu honetan, lehenik eta behin, gizarte lankideak egingo du ebaluazioa, ondoren psikologoak eta mediku-forentseak azkenik. Azkeneko pausua, profesional guztiek informe komun bat egitea da, informe horretan profesional bakoitzak banakako ondorioak izango ditu, baina informea modu koherentean idatzia egon behar da<sup>102</sup>.

---

<sup>102</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, *op. cit.*, 264-265. or.

## 5. ONDORIOAK

### I. Arriskuaren balorazioa eta horrek genero indarkeriaren biktimaren babesean duen eragina

1. Emakume gutxi dira salaketa jarri nahi dutenak. Lan honen hasieran adierazi denez, Konkretuki, 2021. urtean erailiak izan diren emakumeen artean, % 20k bakarrik jarri zuten salaketa. Horren ondorioz, kasu askotan oso zaila da arriskuaren balorazioa egitea; kasu hauetan poliziak ez du indarkeriaren berririk izango eta epaileak ezin izango ditu babes-neurririk ezarri.
2. Hasiera batean, arriskuaren balorazioa egiterakoan, arriskugarritasunaren irizpidea erabiltzen zen. Kontzeptu honekin, delitugilea alde zuzenetik beste delitu bat egin zuen edo ez bakarrik kontuan hartzen zen, biktima arriskuan zegoen erabakitze aldera. Gaur egun, ordea, arriskuaren kontzeptuari erreparatu zaio; horrek, biktima kontuan hartzea eraman gaitu, hau da, bera eta bere egoera nahiz zirkunstantziak aintzat hartzen dituen item batzuen bitartez balorazio bat egiten zaio. Gaur egun ez da bakarrik delitugilea kontuan hartzen lehen gertatzen zen moduan.
3. Arriskuaren balorazioa egitearekin batera, oso garrantzitsua da honen kudeaketa egitea. Kudeaketa egiterakoan, emakumeak jaso duen indarkeriaren arrisku faktoreak -indarkeria bakoitzak arrisku faktore desberdinak ditu- identifikatzea oso garrantzitsua da, biktimak bere arrisku egoera zein den jakin dadin. Adibidez, lanean aipatu den moduan, bikote harremana uzten den momentuan, egoera larria da emakumearen arriskuaren egoeran, delitugilea biktima erailtzeko probabilitate gehiago dituelako. Hori dela-eta, emakumea bikote harremana uzterakoan erailia izateko duen arriskua askoz handiagoa da, eta faktore horiek detektatzea, kontuan hartzea eta biktimari komunikatzea oso garrantzitsua da, biktima delitugilearengatik babestu ahal izateko.

## II. Genero indarkeriaren eremuan arriskuaren balorazioaren inguruko araudia

4. Lanean zehar mahaigaineratu denez, arriskua baloratzea ez dagokio poliziarri bakarrik, baita auzitegiko profesionaleri ere. Zentzu honetan, 1/2004 Lege Organikoa oso argia da bere bigarren xedapen gehigarrian. PKL aztertuz, esan daiteke biktima babesteko bi organo direla parte hartzen dutenak: alde batetik, bere 282. artikulua arabera, poliziak biktimen inguruabar bereziak baloratu behar dituzte, eta behin-behinean behintzat, beharrekotako babes-neurriak hartu beharko ditu, eragotzi gabe epaileak kautela-neurriak buruz hartu behar duen azken erabakia; eta bestetik, 544 *ter* artikulua dioenez, epaileak, poliziaren eta auzitegiko profesionalen balorazioa aintzat hartuta -beharrezkoa baldin bada-, poliziak ezarritako babes-neurriak gain, babes-agindua edo kautelazko neurriak erabakiko ditu.
5. Salaketa jartzen den momentuan, poliziak, VioGén sistemaren bidez, arriskuaren balorazioa egingo du eta, emaitzaren arabera, biktimarekiko egokiak diren babes-neurriak hartuko ditu. Nahiz eta epaileak babes-agindua edo kautelazko neurriak ez hartu, poliziak alde aurretik ezarritako babes-neurriak mantentzen jarraitu ahal izango ditu. Baita ere, poliziak, arriskuaren balorazioa eginda, arriskuaren balorazioaren eboluzioa ere egin behar du, biktimaren egoera aldatu den aztertzeko eta, horren arabera babes-neurriak arrisku maila berrira moldatzeko edo aldatzeko.
6. GREVIOk azaleratu bezala, VioGén sistema goraiatzekoa da eta aurrerapausu garrantzitsua suposatu du emakumearen aurkako indarkerian. Hala ere, ezin dira ukatu, VioGén sisteman jartzen den konfiantza itsuak ekar dizakeen arazoak. VioGén sisteman integratuta dauden itemen bitartez balorazioa egiten zaio biktimari eta ateratako emaitzaren arabera babes-neurri egokiak ezartzen zaizkio. Baina ezin dugu ahaztu sistema informatiko bat dela, eta askotan, nahiz eta emaitza zehatz bat ateratu, agian hori ez dator bat errealitateko egoerarekin; izan ere, kasu horietan poliziak bere esperientzian oinarrituta, emaitza aldatu beharko luke biktimaren benetako egoera baloratuz. Arazoa da hori praktikan ez dela egiten. Honen adibide daukagu, ETICAS fundazioak egindako auditoria azaleratzen duen moduan, %5 kasuetan baino ez dela emakumeak izan duen arriskuaren balorazioa eskuz aldatu; beste % 95 kasuetan, sistemak automatikoki eman duen emaitzaren arabera arrisku-maila izan dute emakumeek, haien egoera pertsonala kontuan hartu gabe.

Poliziek biktimen egoera indibidual eta pertsonala kontuan izan dezaten, ETICAS Fundazioak aldarrikatutako poliziek eskuz egindako txostena kasu guztietan beharrezkoa izango litzateke. Era berean, berezkoa izango litzateke -GREVIOk mahaigaineratzen duen moduan-, biktimen adierazpenekiko gehiegizko menpekotasuna gainditze aldera, ebidentzia beste iturri batzuk modu proaktiboan bilatzea -lehen aipatu moduan, bai lesioak dokumentatuz, eszenako argazkiak edo DNA laginak hartuz, bai bizilagunei eta balizko beste edozein lekukori kontsultak eginez-.

7. Euskadin arriskua baloratzeko eta kudeatzeko martxan jarri den sistema, bestelakoa da, EBA, Emakumeen eta Etxekoen Babesa. VioGén sistemara zuzeneko sarbide ez dagoenez, babes-neurriak dituen biktima bat Euskadira bizitzera datorrenean, polizia-koordinazio zentrotik bidaltzen da emakumearen txostena. Polizia-koordinazioekin dagoen komunikazioa oso azkarra izaten da, baina Ertzain etxetik VioGén sistemara sarrera edukiko balute, agente eskudunek berehala ikusi ahal izango lukete txostena, eta horrek biktima hobeto babestea ekarriko luke.
8. Genero indarkerian epaileak babes-agindua edo biktima babesteko kautelazko neurriak erabaki behar dituzenean, epailearentzat berebizikoak dira arriskua baloratzeko erremintak, hau da, poliziaren balorazioa eta balorazio forentsea. Hala eta guztiz ere, lanean zehar azaleratu den moduan erreminta hauek ez dira erabiltzen eta epaileak biktimarekiko babes-neurriak hartzerakoan poliziaren balorazioa bakarrik hartzen du kontuan. Forentseen balorazioa oso modu eskasean eskatzen da eta estatuko itunaren aurreko lanetan diputatuen kongresuan azaleratu zen bezala, biktimarekiko arreta egokia izan dadin, beharrezkoa da bai poliziaren bai forentseen balorazioa izatea, biak beharrezkoak dira. Horretaz gain, Estatuko fiskaltza Nagusiaren urteko memorietan salatu denez, hiri askotan ez dira ABIUak sortu, 1/2004 Lege Oranikoak agintzen duen bezala. Hori gutxi balitz, funtzionatzen duten ABIUetan egiten den lana ez da homogeneoa.

## BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRI OSAGARRIAK

### Bibliografia:

ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, “Violencia contra la mujer: una visión médico-forense”, *Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020

ANDRÉS-PUEYO, ANTONIO; EQUÉBURÚA, ENRIQUE, “Valoración del riesgo de violencia: instrumentos disponibles e indicaciones de aplicación”, *Psicothema* 22. zk. 2010, 403-409. or.

BORGES BLÁZQUEZ, RAQUEL, “Obligaciones estatales positivas de prevención y medidas de protección civiles para víctimas de violencia doméstica y de género. Una apuesta por su regulación”, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 13. zk., 2020.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, “Guía práctica de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género”, Madril, 2016, 246-247. or.

GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS, “Perfiles de víctima y de agresor en violencia de género: implicaciones para la valoración del riesgo. Presentación del último estudio de casos sobre homicidios de violencia de género”, *Cuadernos penales Jose María Lidón*, 14. zk., 2018.

GONZÁLEZ, RAFAEL, “El protocolo de valoración urgente del riesgo de violencia de género del Consejo Médico Forense”, *Revista Española de Medicina Legal*, 47. zk., 2021.

GONZALEZ ALVAREZ, JOSE LUIS, “Perfiles de víctima y de agresor en violencia de género: implicaciones para la valoración del riesgo. Presentación del último estudio de casos sobre homicidios de violencia de género”, *Cuadernos penales Jose María Lidón*, 14., 2018, 227-231. or.



- LARRAURI PIJOAN, ELENA, “¿Por qué retiran las mujeres maltratadas las denuncias?”, *Revista de derecho penal y criminología*, 12. zk., 2003.
- LORENTE ACOSTA, MIGUEL, “Violencia contra las mujeres: peligrosidad y valoración de riesgo”, *Revista Europea de Derechos Fundamentales*, 19. zk., 2012.
- MONTESINOS GARCÍA, ANA, “Los algoritmos que valoran el riesgo de reincidencia. En especial, el sistema VioGén”, *Revista Aranzadi de Derecho y proceso penal*, 64. zk., 2021.
- PASTOR-BRAVO, MAR; MONTERO JUANES, JOSÉ M.; BARBERÍA MARCALAIN ENEKO; GRIJALBA MAZO, MARTA; ESTARELLAS ROCA, AINA; BAÑÓN GONZÁLEZ, RAFAEL, “El protocolo de valoración urgente del riesgo de violencia de género del Consejo Médico Forense”, *Revista Española de Medicina Legal*, 47. zk., 2021.
- SALOM LUCAS, AMPARO, “Inteligencia artificial y proceso”, *Revista Aranzadi de Derecho y Nuevas Tecnologías*, 57. zk., 2021.
- SANCHEZ LOPEZ, BÁRBARA, “La diligencia policial de valoración del riesgo de violencia de género en el sistema viogén”, *Foro. Nueva época*, 22. zk., 2019.
- SOLE RAMÓN, ANNA M.<sup>a</sup>, “La valoración del riesgo de las víctimas de violencia de género”, *Diario La Ley*, 7353. zk., 2010.
- YUGUEROS GARCÍA, ANTONIO JESÚS, “Violencia de género, seguridad de las víctimas desde la perspectiva psicosocial”, *Revista de Genero e Igualdad*, 4. zk., 2021.

## **Txostenak, ikastaroen aktak eta bestelako iturriak:**

BERDINTASUNERAKO ESTATUKO IDAZKARITZA, *Documento refundido de medidas del Pacto de Estado en materia de Violencia de Género. Congreso + Senado*, Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza, 2019ko maiatzak 13. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/pactoEstado/>

BERDINTASUN MINISTERIOA, *Resumen ejecutivo de la Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019*, Madril, 2020, Eskuragarri: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/Resumen Ejectutivo Macroencuesta2019.pdf](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/Resumen_Ejectutivo_Macroencuesta2019.pdf)

BERDINTASUN MINISTERIOA, *Sistema VioGén*, Espainiako Gobernua. Eskuragarri: <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-mujer/sistema-viogen#:~:text=Hacer%20predicci%C3%B3n%20del%20riesgo,en%20todo%20el%20territorio%20nacional>

DIPUTATUEN KONGRESUA, *Aprobación por el pleno del congreso de los diputados del informe de la subcomisión creada en el seno de la comisión de igualdad para un pacto de estado en materia de violencia de género*, 154/2. zk., España, 2016.

DOMÍNGUEZ, TERESA, “El parricida de Sueca se coló en casa de su ex con dos cuchillos tras separarse”, *Levante. El marcantil valenciano*, Eskuragarri: <https://www.levante-emv.com/violencia-de-genero/2022/04/09/parricida-sueca-colo-casa-ex-mujer-cuchillos-64834828.html#:~:text=Un%20hombre%20mata%20a%20cuchilladas%20a%20su%20hijo%20de%2011%20a%C3%B1os%20en%20Sueca&text=Ocurri%C3%B3n%20el%2010%20de%20agosto,la%20casa%20familiar%20en%20Sueca>

ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIAREN TXOSTENA, *Capítulo III: fiscales coordinadores y delegados para materias específicas: 1.Violencia de genero y violencia domestica: 1.4 Instrumentos para la protección de las víctimas*, 2019, Madril.

ETICAS FUNDAZIOA, *Auditoria externa del sistema VioGén*, Madril, 2022ko martxoaren 8a. Eskuragarri: <https://eticasfoundation.org/la-fundacion-eticas-realiza-una-auditoria-externa-e-independiente-del-sistema-viogen/>

GALDEANO SANTAMARIA, ANA, *Medidas cautelares en violencia de género: servicio de guardia*, 2013ko maiatzaren 30a.

GENERO INDARKERIAREN, AZTERLANEN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOA *Guía de procedimiento VPR5.0 y VPER4.1. Protocolo de valoración policial del riesgo y gestión de la seguridad de las víctimas de violencia de género*, Espainiako Gobernua, Madril, 2019.

GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA, *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas. Datos provisionales*, Eskuragarri:<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/home.htm>

GREVIO, *Primer informe de evaluación. España*, GREVIO inf(2020)2019 España.

GORTE NAGUSIEN ALDIZKARI OFIZIALA, “Senatua”, zk. 134, Espainia, 2017

ESPAINIAKO GOBERNUA, JUSTIZIA MINISTERIO, Unidades de Valoración Forense Integral (VVFI), <https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral>

INFORME DE LA SUBCOMISIÓN CREADA EN EL SENO DE LA COMISIÓN DE IGUALDAD PARA UN PACTO DE ESTADO EN MATERIA DE VIOLENCIA DE GÉNERO DIPUTATUEN KONGRESUA, 199. Zk., Espainia, 2017.urteko abuztuaren 3a

JUSTIZIA MINISTERIOA, ESPAINIAKO GOBERNUA, *Unidades de Valoración*

*Forense Integral (UVFI)*, Eskuragarri:

[https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral#:~:text=Justicia%202020%2D2021-,%C2%BFQu%C3%A9%20son%20las%20UVFI%3F,Valoraci%C3%B3n%20Forense%20Integral%20\(UVFI\)](https://www.mjusticia.gob.es/es/ministerio/organismos-entidades/medicina-legal-ciencias/unidades-de-valoracion-forense-integral#:~:text=Justicia%202020%2D2021-,%C2%BFQu%C3%A9%20son%20las%20UVFI%3F,Valoraci%C3%B3n%20Forense%20Integral%20(UVFI))

LAZCANO PORTERO, GUILLERMO, *Unidad de valoración forense integral de Vizcaya.*

*Experiencia de un año*, 2010. Eskuragarri:

[https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadervalue1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3DUVFI-vizcaya\\_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509252386&ssbinary=true](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadervalue1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3DUVFI-vizcaya_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509252386&ssbinary=true)

LIDÓN, INMA, “La génesis del parricidio de Sueca: amenazas del padre y un régimen de visitas suspendido del que nadie avisó”, *El mundo*, 2022ko apirilaren 4a. Eskuragarri:

<https://www.elmundo.es/comunidad-valenciana/2022/04/04/624ab44321efa030268b457a.html>

ONU EMAKUMEAK, *Preguntas frecuentes: Tipos de violencia contra las mujeres y las niñas*. Eskuragarri: [https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/faqs/types-of-](https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/faqs/types-of-violence#:~:text=La%20violencia%20contra%20las%20mujeres%20y%20las%20ni%C3%B1as%20se%20define,si%20se%20producen%20en%20la)

[violence#:~:text=La%20violencia%20contra%20las%20mujeres%20y%20las%20ni%C3%B1as%20se%20define,si%20se%20producen%20en%20la](https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/faqs/types-of-violence#:~:text=La%20violencia%20contra%20las%20mujeres%20y%20las%20ni%C3%B1as%20se%20define,si%20se%20producen%20en%20la)

OTAOLA, JUAN CARLOS “El programa EBA de la Ertzaintza, de lucha contra la violencia machista, comienza en julio”, *Cadena SER* Eskuragarri:

[https://cadenaser.com/emisora/2021/06/17/radio\\_bilbao/1623918521\\_439097.html](https://cadenaser.com/emisora/2021/06/17/radio_bilbao/1623918521_439097.html)

REUSS, OTTO, “Crónica de una pulsera fallida: por qué la tecnología contra la violencia machista le hace mas daño a la victima”, *El enemigo anónimo*, 2021eko abenduaren

3a. Eskuragarri: [https://www.elenemigoanonimo.com/ciberseguridad-tecnologia-pulsera-maltratadores-violencia-machista-de-genero-](https://www.elenemigoanonimo.com/ciberseguridad-tecnologia-pulsera-maltratadores-violencia-machista-de-genero-2/#:~:text=Se%20trata%20de%20Bindi%2C%20un,de%20todo%20tipo%20de%20violencia.)

[2/#:~:text=Se%20trata%20de%20Bindi%2C%20un,de%20todo%20tipo%20de%20violencia.](https://www.elenemigoanonimo.com/ciberseguridad-tecnologia-pulsera-maltratadores-violencia-machista-de-genero-2/#:~:text=Se%20trata%20de%20Bindi%2C%20un,de%20todo%20tipo%20de%20violencia.)

VARGAS GALLEGO, ANABEL, “Prevencion del riesgo. Gestion del Riesgo”, *IV Congreso del Observatorio contra la Violencia Doméstica y de Género*, Madrid, azaroaren 16-17, 2016.

Legeria:

- 1882.urteko irailaren 14ko Prozedura Kriminalaren Legea (PKL)
- 1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neuriei buruzkoa. BOE, 313 zk., 2004ko abenduaren 29koa
- Genero indarkeriaren arrisku mailaren balorazio poliziala egiteko (1/2004 Lege Organikoaren kasuetan), biktimen segurtasuna kudeatzeko eta kasuen jarraipena egiteko, genero indarkeriaren kasuen jarraipen integraleko sistemaren bidez protokoloa
- 2011. urteko Istanbuleko Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeke indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena
- Biktimaren estatutua, apirilaren 27ko 4/2015 Legea .
- Instrucción nº 10/2007, de la Secretaría de Estado de Seguridad, por la que se aprueba el “Protocolo para la valoración policial del nivel de riesgo de violencia contra la mujer en los supuestos de la Ley Orgánica 1/2004 de 28 de diciembre, y su comunicación a los órganos judiciales y al Ministerio Fiscal”.
- Instrucción 4/2019, de la Secretaria de Estado de Seguridad, por la que se establece un nuevo protocolo para la valoración policial del nivel de riesgo de violencia de género (Ley Orgánica 1/2004), la gestión de la seguridad de las víctimas y seguimiento de los casos a través del sistema de seguimiento integral de los casos de violencia de género (Sistema VIOGÉN).